DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

ARLEGUI
ARRIETA Y SALEGUI, S. R. C.
Teleikuskiñak
Radioak
Iberia
IRRATI TB
etxearen banatzallea
Urbieta, 26 Urrut. 14255

zeruko
ARGIA
ASTEKARIA 1965 - Urrillak. 31 - XXVIII'garren urtea - Idazkola ta Banakola: Okendo. 22 - Tel. 29666
140'gn. Zenbakia :-: Prezioa 3 pezeta

ARLEGUI
ARRIETA Y SALEGUI, S. R. C.
Izozgilleak (Frigorifikak)
Sukaldeak
Garbikiñak
Termoak
Edesa'ren
banatzallea
Urbieta, 36 Urrut. 14255

EUSKAL LIBURU TA DISKOEN azoka Durango'n

LIBURU TA DISKOA

Sarritan aitatu dogu danok, gure irakurteko zaletasunik eza. Egi galanta auxe ta tamalgarria izan arren egia, baña errestasunik emon ete dautsagu erriari?, erriak ete daki liburu askoren barri?, erriari ez ete dautsagu, ta berentzat iruzteko errezagoa da, euskal jai eder eta politak emon, naiz eta positibuak izan, kultura jaiak baño geiago?

Gerediaga'ko bik Azoka au dala-ta, ostera bat egin izan bear gendun Araba'ko uriburura eta bertako gizon batek esan euskun 31'tik guda bitartean egin zala Gazteiz'en Euskal Libuaren Azoka bakarra, berak dakianez beintzat, eta exito bat izan zala. Penagarria auxe da, Durango'koa bigarrena bakarrik izan bearra, eungarrena barik. Euskaldunon errurik astunena auxe izango da seguru asko; aurrerapen ardura, gizarte ardura, folklore ardura, euskera ardura be bai bear bada, baña kultura ardurarik eza, orrexek apurtzen gaitu erdi-erditik.

Durango'ko Urian, illaren 30'ean arratsaldeko 4'retan asi ta 10'etaraño; 31'n egun guztian eta Azillaren 1'ean be egun guztian illuntziko 9'retan egingo da Euskal Liburu ta Diskuen Azoka. Tokia Andra Mariko elizpe zabal eta ederra.

Ogetakak argitaldari edo editorialek aurkeztuko dituez euren standak. Milla ta berreun titulu ta ogei milla ale bilduko dira liburuetan eta eun da berrogetamar bat disku.

Durango oso leku estrategikuan aurkitzen da, Bilbo, Donostia ta Gazteiz'ko bideak bat egiten daben tokian eta Markiña, Gernika, Eibar, Bergara, Oñati ta beste erri aundi askotik urrean. Tren, autobus eta beste aukera asko ta onak ditu Azokara euskal kultura zaleak bertara joateko.

Gerediaga'k euskal idazleai dei bat egiten dautse. Azokaren egunen baten Andra Mariko elizpera joateko; danak onartuak izango dira ta pozik gañera. Euskal Liburu ta Diskuen Lenengo Azoka ongarria izango danik, ez dago dudarik eta ondo atarako dalakoan gagoz. Durango'koa bigagrrena bada, datorren urtean beste ogei beintzat egin deitezala Euskal Errian zear, gure kulturaren onerako.

J. L. L.

Azoka arintzeko ta bide batez «reclamo» lez ikusketa batzuk egongo dira, amar miñutukoak goia jota. Ara emen euren egitarua:

URRILLAREN 30'ean,

arratsaldeko 4'retan, Azokaren asiera-emoteko «TRONPERRI» erriko taldeak «Agurra» ta «Uztai-txiki dantza» egingo ditu.

5'etan, «Avignon» euskal filma.

6'retan, «TRONPERRI» taldeak «Sorgin-dantza» egingo dau.

7'retan, GARAI'ko dantzariak «Ikurrin-dantza», «Gernika'ko Arbola dantza» ta «Biñangoa» dantzatuko ditu.

9'retan, EUSEBIO BILBAO, «Durango'ko Itsuaren» auzpo saioa.

URRILLAREN 31'kan,

10'etan, BERRIZ'ko dantzariak «Ezpata-joku nagusia» «Banangoa» ta «Erreglak» (Aurresku de las Anteiglesias de la Merindad de Durango) dantzatuko dituez.

11'tan, «ASTARLOA» erriko zortzikotearen saio laburra.

13'etan, albokarien saioa.

16'etan, bigarren alboka saioa.

17'etan, «Ereaga'tik Matxitxako' raño» euskal filma.

18'etan, «ASTARLOA» zortzikotearen bigarren saioa.

21'etan, EUSEBIO BILBAO'ren bigarren auzpo saioa.

AZILLAREN 1'ean,

10'etan, IYORRETA'ko dantzariak «Zortziñangoa», «Makilla-jokua» ta «Txotxangilloa» egingo dabez.

11'tan, ABADIÑO'ko dantzariak «Launangoa», «Ezpata-joku txikia» ta «Zortziñangoa» dantzatuko dabez.

13'etan, AZPILLAGA ta LOPATEGI bertsolarien saioa.

17'etan, «Erria» euskal agiri-filma.

18'etan, LOPATEGI ta AZPILLAGA'ren bigarren bertso saioa.

19'etan, «TRONPERRI» neskataldeak «Gorulari-dantza» egingo dau.

21'etan, Txistulariak Azokari amaia emongo dautse «Agur Jaunak» joaz.

Asieran esan danez, saio onek ez dira Liburuen ta Diskuen Azoka Euskal Jai bat biurtzeko, jendeari bertara deitzeko baño, euskal erakusketa onekin. Bertan Bizkai'ko ezpata-dantza, obeto esateko Durangoaldeko «dantzari-dantza» eskeiño deuskue Berriz, Garai, Iyorreta ta Abadiño'ko dantzariak, gizaldietan zear dantza orrek gorde dituezan erriak. Berba baten, Merindadeko folklorea ta Euskal Erri guztiko erakusketa bikaiñak, bertso, doñu ta abar.

GEREDIAGA, AZOKA ONEN ANTOLATZAILLEA

Bigarren Paskoetako astelenean sortu zan GEREDIAGA, Durango'ko Merindadearen Adiskideen Alkartea. Abadiño, Berriz, San Agustin-etxebarri, Mallabi, Iyorreta, Mañari, Garai, Zaldibar, Arrazola, Axpe, Apatamonasterio ta Izurtza Elizaurre edo Anteiglesiak eta Durango'ko Tabira, Elorrio, Ermu ta Otxandio Urietan kultura giro ta ardura bat sortzeko eta bide batez Merindadearen nortasun eta batasuna zaindu ta sendotzeko. ZERUKO ARGIAN emon zan Alkarte onen barri.

GEREDIAGA'ren egitaraua, alkar laguntza da Durangoaldeko errietan; gogo ta gizarte egoera goratzea bere barrutian.

Era bitan jarri ditu bere urte beteko planning antzekoa: arlo osoak eta erri bakotxeko arloak.

ARLO OSOAK: Astola'ko Merindadearen Etxea. Etxe au Alkarte oni eskeiñi dautso Bizkai'ko Aldundiak barriztauta gero bere batzarlekutzat.

Boletiña.
Irakaskintza monografi leiaketa.
Euskera sariketak.
Erdera sariketak.
Merindadeko beste Alkarte batzukin artu-emonak.
Merindadeko monumentuen katalogatze lana.

ERRI BAKOTXEKO ARLOAK

ABADIÑO. — Astola'ko Etxearen barriztatzea ta idegitzea, Aldundiaren laguntasunagaz.
Sukalde txapelketa.

ATXONDO'ko. — Arana (Arrazola, Axpe-Martzaa ta Apatamonasterio). Argazki ta Diapositiva sariketa.

BERRIZ. — Industri Ziñearen agerpena.

DURANGO. — Euskal Liburu ta Diskuen Azoka.
Industri Ziñearen agerpena.

ELORRIO. — Industri Ziñearen agerpena.
Lenengo Arkitektura Batzarrean parte artzea.

ERMU. — Industri Ziñearen agerpena.

GARAI. — Zubiaurre anaien Erakusketa-Omenaldia.

IZURTZA. — Dibuju sariketa umeentzat.


MALLABI. — Baserri kirola.

MAÑARI. — Kirikiño'ren eunurteburua dala-ta Euskaltzaindiaz batera omenaldia antolatzea.
Euskera sariketa.

OTXANDIO. — Industri Ziñearen agerpena.
Errementari sariketa.

ZALDIBAR. — Margolari sariketa.

Planning onek ez dau esan gura, asmo danak beteko diranik edo zerbait aldatuko ez diranik, baña uste dogu danak aurrera eroango dirala, danen laguntasunagaz. Orretarako GEREDIAGA'k bazkideak bear ditu, batez be Durangoaldean, ze zenbat eta langille ta laguntzalle geiago asmo orrek betetea errezagoa izango dau.



Euskal Liburu ta Diskoen Azoka
DURANGO
30 - 31 OCTUBRE
1 NOVIEMBRE
Feria del Libro y del Disco Vascos
organizado por
GUEREDIAGA
ASOCIACION DE AMIGOS DE LA MERINDAD DE DURANGO
PATROCINADO POR EL ILTRE. AYUNTAMIENTO DE DURANGO

IMPRIMAS DURANGO DEPOSITO LEGAL BI - 1788 - 1.965

DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

GIPUZKOA

ELGOIBAR

IZPAR BELTZA

Jaunaren besoetan ilda erri ontan. Ajubita-tar Juana 74 urte zituala (Goian Bego). Bere illotoizketetan kristau asko batu zan. Laguntzen diegu naigabean bere sendi guztiari.

BILLERA BAT

Igezi zan igandian emengo San Migel «Oñaztegi-ren» jatetxian, billera bat egin zuten Etxaniz abizen zuten 31 lungusu-lengoxiñak, Etxaniz-tar Migel «Antzuxita» bure zalarik. Poz eta alaitzu igaro zuten egun au.

ARRANTZA EDERRA

Igezi zan larunbatean, Deba-ko kaian Leyaristi-tar Bartolo-k 6 kilo eta 700 gramoko lumina arrapatu zuan amozian. Zorionak Bartolo.

OSTIKOKETAK

Igandez jokatu zuten Legazpin bertako Ilintxa taldiak eta, emengo C. D. Elgoibar-ek guriak irabazi zuten 2 ta 0.

Emengo txikiak Azpeiti-ko zelaian jokatu zuten ango Lagun-Onak txikien aurka Bi ta bi gelditurik.

MIN ARTUAK

San Inaxio ebeki-etxe-Clinikan arkitzen dira min artuak Irusta tar Gloria eta, «GARATE» baserriko amona. Biak ondo a datozela diote. Pazten gera benetan.

BATZAR ARTEZKARI BERRIA

Igezi zan asteko egun batean «MORKAIKO» BAZKUNEKUAK URTEROKO BATZAR NAGUSIA IZAN ZUTEN, urteko gora-berak ontzat emanik, aurrera ko Batzar Artezkari berri au aukeratu zuten: LENDAKARI: OTEGI-TAR ASENXIO (berriro).

Ordezkua: Larrañaga-tar Iñaxio.

Idazkari: Izagirre-tar Begoña (neskatillia).

Ordezkua: Muruamendiaraz-tar Juani (neskatillia).

DIRU-ZAI: Uribe-tar Gerardo.

Abobatzakuak (juntakoak) Larrañaga-tar Domingo: Gurrutxaga-tar Joaquin: Zulaika-tar Joseba: Osorotar Jose: Txurruka-tar Sabino eta, Etxeberria-tar Pedro.

LABORAL KUTXA

Laboral Popular-Langille Kutxan, jun zan illeko zozkeran-sorteo-an Elgoibar-ko liburu-libreta sarituak onexek izandu dira: 45472 zenbakia 800 laurleko: 45.664 zenbakia 2.000 laurleko. Zorionak.

EBAIKETA BAT

Donosti-ko Klinika batean ebaiketa bat egin diote Santolaya Antonio-ri. Ongo arkitzen da bera.

ESKONTZA

Donosti-n ezkondu da gure lagun dan Arriola-tar Antonio Donosti-ko neskatilla batekin. Zorionak.

ITZALDIAK

Igezi zan Ostiralian Cine Elgoibarres aretuan asiera eman zitzaion 18 urtez gorako neskatxenzat peivologia-z itzegin du Pilar Cuadra deitzen dioten izlariak, goralduak izanik bere gaiak. Geroko egunetan ere izango dira beste itzaldi batzuk ere.

GEXORIK

Eta eleizakuak artuta arkitzen da, Mendikute-tar Inaxio «ZABALETA» baserriko aitona.

AZERI-ZARRA

ERRENDERI

SANTU GUZIYAN EGUNA

Elizak ospatzen dun egun aundira eldu gera. Il ziran gure aurrekoen oroitza berritu eta euren anima alde otoitz egiteko eguna.

Ill-errian sartu ta irten jendetza ugariak ibiliko dira, ori ez dago gaizki baña batez ere gure otoitz beroa izan dezate lagun gure aurretik joan ziranak. Gure illerri zarreko ate gañean jarrita dagonaz ez gaitezen aaztu: "Laister esango da zuengatik orain gugatik esan oi dana: il ziran!

EZKONTZA

Donosti'ko Martin Donearen elizan ezkondu ziran, Joakin Urkizu ta Ramoni Urretabizkaia. Zorionak!

ERIOTZA

Gazterik, 42 urterekin, eta uste gabeko eriotza izan du, Urdangarin'dar Juan Mari'k (G. B.). Bere alargun, Esnaola'tar Mari Anjeles, guraso ta senideak atsekabean lagun gaituzte.

SASKI NASKI

—Gure Udalaren erabakiz, Galtzaraborda'ko plazak mendi-izenak eramango dituzte. Urdaburu, Titzgorri, Urbia, Aralar.

—Datorren urtean gure Udalak bearko duen dirutza edo presupuestoa 14.000.000 peseta izango da.

—Erriko pelota-toki edo frontoi ederra estaliko ote duten susmarrak dira.

Ia oraingoan egi gertatzen den.

—C. A. Renteria'ko gazteak Gipuzkoa'ko txapeldun gelditu dira. Zorionak, oraingo ortan gizon portatu zerate.

—Gure ostikolariak berriz ere galdu. Touring'en Arrasate'n eta Renteria'k Lartzabal'en, zarauztarren aurka.

—Argarate'tar Joxe, jator ta alaia zala guztiok genakigun bañan orrelako perratxiku biltzallea zanik? Orain berriro zazpi kilo bildu omen zitun.

AÑARBE

TOLOSA

FRANTZIZKOTARREN BILLERA

Prailleok berrogeitamar urte Tolosa'ra etorri zirala bete dituztelarik, jai ikusgarriak eratuak dituzte ospatzeko.

Illaren 17 gn. koeteak eta txupinazoak deitu ziguten goizeko amarretan ematen zan mezetara. Meza ondòren «Leidor» antzoki ederrian euskal-jai polit bat izan zan: Tarteka-marteko jardun ziran Lazkano azpeitiar bertsolaria eta Berrobi'ko Garmendia, jendearen poza eragiñaz.

«Coral Franciscana»'koak ere «Agur Jaunak», «Itxasoan laño dago», «Baserritarrak gera gu» eta aita Donosti'n «Bili-Bonbolo» abestu zituzten.

«Tronperri» dantza-taldeak —Durango'tik ontara etorririk— dantza saio eder bat eskeñi ziguten. Danak, batzuek eta besteak, txalotuak oso izan ziran.

Bazkalondoan, San Francisco eleizan, berotasunezko eleizkizunak egin ziran, izlari bikaiñak iztun ziradelarik eta «Coral»'ekoak beste kanta batzuek abestu zituztelarik.

Kanpo-errietatik etorritako jendeak biotzak alai itzulo ziran bere etxeetara egun ongarri bat osatu zutelako.

LAGUN BAT JOAN ZAIGU

Urteaga tar Juan Joxe (G. B.). Iñoiz ez letorke obetogo pluralizatzea oraingo ontan baño. Ez baizan nere lagun bakarrik, baizik danona. Danak zizkitzun lagun, iñor ez etsai. Mendizale asper-eziñekoa; euskaltzale purrukatua; sinismen aundikoa eta guzion adizkidea.

Euskera uts eta garbian egindako «eskelak» erriko eskaratz guzietan ikusi genituen bere eriotzaren berri zegokion bezela azken ibilaldian laguntzera joan zitzaion jendea pilloka, entierro gutxitan ikusten dan bezela. Sendiaren atsekabea, gureguerea da.

OGI ETA ARRAIEN MULTIPLIKAZIOA ETA EUSKERA

Erriko persona ezagun baten izena «Zeruko Argia»'n azaldu ba-det, ara nun jaso detan eskutitz bat esanaz, alegia, gizon aundien izenak bakarrik azaldu bear dirala.

Beste iritzikoa naiz. Gure-gureak azaldu bear ditugu bear ba-da itxuraz benik gauz txikiak egiten dituztenak, bañan azkenean gure problemak konpondu nai dituztenak, gure okerra zuzentzen diranak, gure okazeekin oñazetsen diranak. Beudez pedante edo arro-putzentzat atzerrietako apellidu zaillak, aldrebesak, ezezagunak... guk diru gutxi liburu gutxi.

Eta bide ematen didaten eskeroz, berriro Artolazabal andereñoa izena dakart. Berak ematen ditun euskera irakatsaldietara laister ezkondu bear diran andereñoak dijoaz. Ama izateko itxaropena dute eta erresponsabilidadean sartu dira: euskeraz itzegin nai diote bere seme izango diradenei. Zeiñen goxo entzuten diran euskeraz maiteitzak! Eta gero, zer esan bear dute euskeraz ez dakiten semeak? Auek bai esango diete seaskatxoan: kuttun, maite, lore, eder eta beste izkuntzetan berdiñik ez diran itzak. Eta aurtxo oiek biar giran egingo dira, eta berriro azia bota eta ugarituko dira...

Ara utskeri dirudin gauz batek garrantzia nundik dun. Euskeraren basamortuan ogi eta arraien multiplikazoia izan leike. Izango litzake, kezkarik gabe, ama izatekotan dabiltzan danak onela egingo ba-lute, ama euskaldunaren erresponsabilidadea arturik: Zabar asko dago gure artean; alegindu gaitezen zabar oiei onelako erakutsiak azaltzen. Euskal emakumeak! Zuen eskuetan dago, ibitatuaz, euskal basamortuko milagroa...

«UXOLA»

ZUMARRAGA

AMA EUSKERA

Asko alaitzen da gure barrua entzutean, gure lagunak egiten diguten arrerarekin, esanaz jarrai dezagula gure benetako «Zeruko Argia»'ren bidez erriko berriak eta abar idazten.

—Egia esateko, lendabiziko egunetik gaurdaño gure naia izanda, Euskeraz idatzi ta gure erritarren artean Euskera maita aztea, ta orregatik aleginduko naiz egun oro alik ondoen nere lantxo au egiten.

Maita dezagun denok gure abendaren Ele eztia.

Gai oni buruz ara zer dion gure lagun on Pello Berritxuk.

—Euskalzale danok goizean jeikitzean artu bear diau asmo sendo bategun ontan Euskeraz bakarik mintzatzeko, Lendabiziko egunetan zail izango da, baña gerora gure lagunak beak ere oituko dira, eta euskeraz egingo ditek. Orrezaz gañera alegindu bear degu, aldegun ondoren itz egin da gure ele ederra apaintzen. Ta asmo au betetzeko Bidasoaz onutz ez degu gaurdaño tresna oberik arkituko gure Astekari Zerugo Argia, lakorik.

—Beste eginkizun aundi bat bategu gizonak, au da: Emakumea arlo ontara jartzeko bideak artzea, kutsutu deigun Euskal Emakumea kezka onekin eta Txertatu deiogun bere biotz barruan, Euskeraren zaletasuna.

—Guztiz egokia izango uke Andra ta Andereñoak irakurtzea Z. Argian, Andereño aupagarri batzuek idazten dituzten lan ederrak, auek ez ditek bildurrik euskeraz itz egiteko ta idazteko. Ekin danok ezpairik bage.

ERREKARTE

BIZKAIA

GALDAKAO

ZIDARREKO EZTEGUEK:

Urrilla'n 9'garrenan ospatu leuzan osagilla'tzako zidarrezko ezteguak, erri auetako osagilla azkarra dan Fernandez eta Arostegi' tar Bitor' ek, beren ikastaro'ko osagille talde bategaz batera. Zorionak ZERUKO ARGIA'ren bitartez, Bitor, da ia urrezkuak eta geyago ospatuten dozuzen orain lako osasunaz.

PERRETXIKO LEYAKETA:

Illa onen lenengo aldian ospatu zan perretxiko leyaketa bat Tolosa'n. Leyaketa orretara aurkeztu ziran erri auetako "Santa Cruz" jolas bazkuona'kuak, alderdi auetako perretxikuakaz; bañа, ez aurkeztu bakarrik, mueta edo klase bategaz "beyen miña" (lengua de vaca) esaten jakonaz, lenengokua saria irabazi dabe eta mueta guztietakuaz, iru'garren. Gure zorionak galdakaotarrak lez.

BASAJAUN

MARKINA

Lengo baten, urteroko oitureari jarraituaz, Euskalerriko bertsolaririk geienak batu jakuzan Aita Karmeldarren etxean. Iñon eta iñoiz bertso ederrik entzun bada, an eta orduantxe bai entzun zirala, gogo-belarriak asetzeko añakoak. Ondo bai ondo orrelango umorea, anaitasuna ta asmo ederrak!

Igaro dan astean emen aitatu zan umeentzako ikastola barriaren bedeinkaziñoa izan gendun lengo igandean. An ziran erriko agintariak eta beste lagun asko. Aita Migel Mariak bedeinkatu eban. "Zerutxo" izen polita dauko umien ikastola orrek. Ogeta amalau umetxo dabilz, eta geituko diralakoan gagoz.

Agintari, langille ta bertakoak, lengo 19'an izan eben Iturretako bide barriaren "montxorra". Urte asko dira bide orren premiña aundia nabaritzen zala, ta azkenez, baserritarrak alkartu diranean, Diputaziñoaren laguntzaz, lortu dabe asmo ta premiña ori egi biurtzea. Makiñatxo bat markiñatar eta kanpotar joango dira Iturretako aize piña artzera.

Urriaren 16'an izan genduzan Aldapeko Domingo Jemeinen illetak. Bere alabeari-Arretxinagan irakasle dogun Maritxu Azpiri'rita senide guztiei, gure samin-agurra.

Kristiñau barri mordotxo bat izan dogu azken aldi onetan:

Osolo-errotako Josu Mirena Gandiaga Egia, Jose Mari ta Ana Mariaren semetxoa.

Mikel Biteri Aretxabaleta, Roman eta Miren Begoñarena.

Maria Elena Ezenarro Gerenabarrena, Eulogio ta Ebaristaren alabatxoa.

Fernando Larrinaga Arriola, Beko-boluko Jose ta Guadaluperena, ta Angel Maria Ibarluzea Egaña, Gaspar eta Paularena.

Guraso barri guztioi zorionak!

"Gurea", koperatiben illeroko orriak, beste gauza jakingarri batzuen artean, onek dakarz: MIBAK Iraillean saldutakoa, 1.436.067 pezeta jenerotan eta 600.000 pezeta ganautan izan dala, eta iru sozio barri sartu dirala.

BIONA etxeak amabostean bein, eguen goizetan, bere beterinario bat bialduko dauala, pentsu edo egazti gauzak edozeiñi duban (debalde) azaltzeko. Etxeetara joan bear balitz be, ezer eleuke kendu-ko.

"La Marquinesa"k Iraillean saldutakoa, 996.913 pezeta izan dala.

Koperatiba etxea aunditzen asi dirala.

Datorren illaren asikeran, 7 urtetik 12 urtera arteko neskato. Mutikoak zazpi t'erdietan asi ta ordu beteko ekiñaldia izango dabe, euren gurasoen berbeta aztu ez eze, baita obeto ikasi dagien eta idazten eta irakurten jakin dagien. Baiña gogait egin barik: kantuz, olgetaz, bertsoz, irakurriz... Zuen alabatxoen izenak emon karmeldarretan len-bait-len. Ia iru lau bakarrik ez diran. Markiñako gurasoak lotsagarri geratu ez gaitezan danen aurrean.

sintasol

Gaurko solairuetarako jantzia.
Gipuzkoako zabaltzailleak:
ARISTEGI ANAIAK
Almazena: Moraza, 4 — DONOSTIA — Tel. 19.446

MARCO LANTEGIA
TALLER DE PINTURA
J. Urbina
ETXE-BERRITZE - BIZITOKIAK
IDAZKUNAK - PAPEL IPINTZEAK
Obras - Viviendas - Rótulos - Empapelados
Plaza Iruresoro, s/n. Urrut. 23.129
DONOSTIA

1.896 1.965
GIPUZKOA'KO PROBINTZI - ERATETXEA
(Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa)
Zure diru bearretan gure "PRESTAMEN SERBITZARITZA"z (Servicio de Préstamos) balia zaitez.
Zure baserria erosteko edo obetzeko
Zure Arrantz-Ontzia erosteko edo obetzeko
Aberea —azienda— erosteko edo obetzeko
Baratzeko frutuak obetzeko
Jakinbidean jarri zaitez Donostia'ko gure 7 ofizinetan eta Probintziako 59 sukursaletan

TV - RADIO
TELEFUNKEN
MUNDU guzian famatua dan marka alemana
TELEMIG
MIGUEL CELARAIN'enean arkituko dezu
Urbieta, 24 — Urrut. 11.711 ta 24.700
DONOSTIA

PASAI
Molinao auzoa
Urrut. 57384 ta 51528
BURNIZKO LANKETAK
(Construcciones Metálicas)
FONHER, S. L.
Burnizko laukiak tximist-indar lanetarako
Aldakientzako gordailluak.
(Cuadros metálicos para maniobras eléctricas)
(Depósitos para transformadores)

DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

Il-Errietan, euskaldunik ez?

Garitaonandia'tar Gotzon

A zelako esturak nireak, ondiño lengo batean gallur onetatik etorri ziran doitxtar batzuei eskerrak. Gure erria ezagutzera etorriok, zeaztasunez aztertzen eben guztia. Iakintsuak ziran gañera ta agoberokeriz etzan aien iakin-naia asetutzen. Aren itandu bearraren itandu bearra.

Mañun gertatu iakena emen dozu.

Eztago emen turismoarentzat zer ikusi aundirik askok aitzen daben erara turismogarri, toldo politak eta lora-ontzi ori-gorriak baiño ezpadira. Emen eztogu olakorik. Ordu-erdi emengo bazterrak ikusteko naigo ta lar da, ikusteko diñot...

Eleiza ikusi gendun, margozki barri ta guzti. Alako baten ze; il-erria nun egoan. Ioan giñan ara be, ta asi irakurtzen, bat, bi, iru... Danak "aquí yace" ta "aquí yace". R. I. P. Arrituta egozan. Guzurtitzat artu ninduen, adiskide. Ni pozarren eleiztarrak euskaldunak neukazala esaten; euskaldun utsez Euskalerriaren edenra; gure nortasuna ta...

Zer da ta nor da ta il-errian euskaldunik ez. Larogeinbat kurutze ta euskeraz bat bakarrik.

Zer orren arrazoiak guztiok dakiguz; zuk eta nik be bai, betikoak. Gallurrekoa bat alan be: euskaldunak biotz bidunak, baiña burubakoak izatea edo...

Gure aurretikoak, erri berezia izanik, eriotz inguruko egikerak esakerak, eta il-arriak be eusko-gogoa erioela egiten ebezan.

Aralar'en ta gelditzen dira arima aren lorratz batzu oraindiño. Noz eten ete da aiengandik guganaiñoko ari ori? Egoki litzakigu onetantxe be berbizte batera iotea. Gure eliztar baten eriotz-ondoren banatu oi diran estanpa-oroigarriak sineskeri asko ta kristautasun gitxi erakusten dabe.

Ez dot onetarako oñarri lez artu Orixe maixu andiaren "Erri bat izan zan", ez. Ez gugoz il-urrean, "edota ats emaiogun", "gure da bizia". Baiña gure gogoa agertzeko eratxo bat be galdu bear eztogun ezkero, ondo be ondo legoke gure izkerari iarraituz, il iakuzanen lur gañean iarri daikeguzan kurutzetxuak eta il-arri ta oroigarriak euskeraz eta eusko-erara landu ta egitea.

Zelakoak diran iakin nai badozu Donibanen agiri dira ta onuntzago be bai.

Ez egoki da benetan gure il-arri ta il-erriak geienak erderaz egotea. Bizi euskeraz eta gero "aquí yace" etxegok ondo. Zoritxarrez, alemana edo izan bear ori ikusteko.

Euskalerri onetan askori gertatuko litzakio, beste onenbeste (Zeanuriko Ipriñaburu'koei ez, an geienak euskeraz baidagoz. Zorionak!).

"Erri baten arnasa"-ri eutsi bearrean, ito zorian daukenen alde ibiltea ezta zuzena" (Joan XXIII-nak).

Gure erriak irakasleak bear dauz. Au ondo dakigunok lagundu daiogun gure artaldeari. Gure egitekoa obeto betetuz, argi ta gatz izan gakiozan. Ta gaztedi barriak iakingo dau euskaldunen azurrak nun liran.

ILLETA

Kristiñauak eztakigu zer dan eriotzea, edo obeto esateko, eztago eriotzarik benetako kristiñauentzat. Bizitza onen aldakuntza bat bakarbakarrik da, kristiñauak ezagututen doguna.

Ona Eleizeak illen mezetan esaten dauana: «Bizia ezta amaituten, aldatu egiten da», eta Santuen eriotza egunari, «Yaiotza eguna» esaten dautso.

Yosu Aurra'ren Terese'k, onako au iñoan: «Enaz ilten ari, bizitzan sartuten ari naz», eta oian, bere arima garbia Jaunari emoten iñarduan.

Gure arteko illak eztira il: oindiño bizi dira. Eta gaiztokira yoatea irebazi ezpaldin badabe, Jaungoikoa'gan aurkituko ditugu egunen batean. Eurokaz betikotasunean bizi gura dabenak, Kristo aurkitu bearko dau; Beroneri entzun eta yarraitu.

* * *

«Berbizkundea eta bizitza Neu naz» (Jn. 11, 25).

Bene-benetan dirautzuet: «Nire itza gorde dagianak, eztau eriotzarik iñoiz ikusiko» (Jn. 8, 51).

«Neu naz zerutik yatsitako ogi bizia: ogi onetatik yan dagiana, betiko biziko da» (Jn. 6, 51).

Illak berpiztuterik eztagola esaten dabe batzuk; baiña zelan esan leiteau, Kristo berbiztu dala aldarrika ibillita gero? Kristo berbiztu ezpaldin bada barriz, gure aldarrika guztiak uts; zuen siñistea uts... Beeko bizitza onetarako bakarrik Kristo'ren zain bagagoz, gizakumerik errukarrienak gara (1 Ko. 15, 12, 14, 19).

* * *

Gizoztea ildakoaren atzetik doa.
Batzuk, baltzez yantzita, negarrez,
beste batzuk baltzez yantzita eta itun,
onako oneik, baltzez yantzi barik eta erdi negarrez,
arako areik, barriketan, barreka edo aspertuta.

Ortu Santutik urteieran
lenengokoak negarrez iñoen: «dana amaitu zan»,
bigarrenak baltzez, zotinka «gora biotza, gazte,
ez larritu, amaitu da»,
irugarrenak iñoen: «gizajoa, baiña dana da bardin,
dana amaituten da»,
azkenengoak barriz: «ut, gaitzerdi,
amaitu da».

Eta nik ostera, nere kautan egin neban: «Dana asi da,
ildakoak bere saioa amaitu dau: baiña betiko antzirudia
oraintxe bertan asiko da,
amaitu ziran mundu onetan bere ikaskizunak; baiña,
oraintxe asiko da benetan betirauneko ekintza;
bere sortitza amaitu da, eta orain asiko da
betirauneko bizitza.

Bai, ildakoa yaioten ari zan
orduantxe sortuten zan Bizitzara,
gauza dan Bizitzara,
benetako Bizitzara,
betiraunego Bizitzara

Iñor ilten ete da ba!
Ez, ezta iñor ilten, Jauna;
emen bizi direanak eta an bizi direanak
bakarrik ezagututen doguz.
Eriotzea bai..., ezagututen dogu eriotzea:
Baiña lipar bateko zera bakarrik da,
pitin bateko gauzea, yauzi batekoa;
aldi neurtutik betikotasunerako yauzia.

Umezaroak gaztezaroari leku emoten dautson lez:
mitxeleteak bere egazkadea egiten dabenean, bere sartzaille
izan dan arrari lekua kenduten dautson itxuraz;
gari-aziari, galburua sortuten danean, yazoten yakon era berean.

O, eriotza, txantxetako irudia, ume txikien bildurgarri,
guzurrezko iratxoa; barregarria zara benetan!
Eta batzuetan asarrea sortuten daustazu,
gizon asko ta askorentzat bilurkorra zaralako;
eta benetan, etzara ezer be; beste bizitzaren aldakuntzea baiño.

Baiña nun ete dira, bizi zireanean nik maite izan nituenak?
Gure etxekoak, gure senideak,
gure adiskide miñak, nun ete dira?
An, betiko atsedenean, Irutasun Deunaren antzean,
maitasunez atseginduten?
Edo ta, betiko zori gaiztoan, maitasun egarriz
eta ezin maitatuz?
Eurak, euren buruak betiko galduta ete daukez,
lagun urkoarentzat izan zituen gorrotoak
atarako bearturik?

Jauna, emen, nire ondoan dagoz nire senide zireanak.
Emengo illutasunean bizi direala esango neuke;
eztitut ukututen —egia da— eztitut ikusten,
euren gorputz-yantsiak betiko galdu zituelako,
soiñeko bat kenduten danean lez.
Euren arimak, gorputzaren zomorroa galduta,
eztauste txerarik egiten.

Baiña, Zeugan, Jauna, entzuten ditut aren deiak,
ikusten ditut aren txerak,
euren onuak nabaitzen ditut.
Bai, orain nire ondo-ondoan oartuten ditut.

Len, gure aragiak, alkarren aurrez-aurre egozan;
baiña ez gure gogoak.
Eta orain aren gogoak besarkatuten ditut Zeugan.
Nire barruan nabaituten ditut Zure Gorputza artuten dodanean;
Neugaz batera bizi dira, Zeugaz nagonean.
Zeu maitatuten zaitudanean, eurak be maitatuten ditut.

O, nere senide illak, neregan beti bizi zareanok,
Bizitza labur onetan ondo bizi izaten lagun egidazue.
Jauna, maite zaitut, eta maiteago izan gura zaitut.
Zuk zainduten dituzu maitasun betikorrak,
eta nik betí gorde gura dot nire biotzean MAITASUNA.

ARRUTZA ETA EGIA'TAR MIKEL

Bilbo'n, 1965'gko. Domu Santu Egunean.

Euskal gogoaren erakusketak

EUSKAL Egunak eta Jaiak antolatu izan diranean, gure jolas, joko ta dantzak erakutsi izan ditugu geienetan. Gorputzindarketak, aizkolarien yayotasuna, idi-probak, adari talkak, bete izan dituzte egun oietako ordu ta ikuskizunak.

Baiña euskaldunok ba-degu oiez gaiñera gure alderdi obea. Gure sasoiak ta jokorako gaitasunak, gizonaren alderdirik bekoena erakusten du. Ortik gora daude gure gogo, arnas eta espiritua. Eta gogo ori gure liburu, disko, eresi ta beste erti lanetan agertzen da nausiki.

Egunetik egunera, gure erriaren almen eta doaiak argitara ateratzen dituzten idazleak ugaltzen ari zaizkigu. Gure gazteak, eman diote kanta berriak sortzeari, ta gaurko girotan dabiltz, kanpoko abestiei euskal itzak jartzen eta bere aldetik kanta berriak ateratzen.

Euskal ikastolak ere, berebiziko bizitza artzen ari zaizkigu ta euskal irakasleak saillean ari dira gaitzen. Gure margolari ta eskultoreak ere, nun-nai eta noiz-nai agertzen zaizkigu mailla-rik goienean. Agerpen auek guziak ematen dute gure erriaren go-go-mailla ta jakintza giroa. Beste guziak urrengorako utziaz, gure errietako agintariak eskuetan dute gure Euskal Jaialdiei goragoko mailla bat ematea.

Ortarako, gure espiritu emaitzak erriari erakustea izango luteke biderik egokiena. Diputazioen eta Euskaltzaindiaren laguntzarekin, erriz erri eraman bear genduke gure liburu ta diskoen Peri Nagusia. Liburutegietan burua ta begiak nekatzen ari diran gure gizon jakitunak, agerleku zabal bat bear dute, gure erriaren ezaguerara iritxi ditezen gizon saiatu oien lanak eta billaketak.

Eta gure gazteen gaurkotasunak ere, zabalera aundiagoa bear du, gure gaztediaren biotzean erantzunik eta eraginik aundiena izan dezan. Poztu ditzagun lan auetan ari diranak eta eskeiñi dezakiegun gure errietako erakustokirik onenak, beren alegiñak alik eta geien ezagutu ditzan gure erriak.

Au, guzi au, gogora etorri zaigu, artu degun albiste baten bidez. Durango aldean eman diote asiera onelako zerbaiti. Asmo ederrenak mamitu dira alde aretan. Orain ez goaz berri au zabal eta zeatz ematera. Izango da orretarako aukera. Gaur, Euskalerri guziaren aurrean jarri nai degu Durango'ko errian egiteko dan Jaialdia.

Iru egun oso artu dituzte ortarako. Durango'ko Merindade Lagunen Elkarte bat izan da lan au bere gain artu duana. "Gerediaga" Elkarteak eman digu erakusbide au. Euskalerri auetako lau Diputazioak eta Euskaltzaindiak bere laguntasuna eman die ta Urrillaren 30 eta 31'an eta Azaroaren 1'goan zabalduko dute Erakustegi ori Andre Mari eliz-atarian. An ikusi al izango ditugu etxola txukunetan jarriak, Euskalerriko idazlariak sortu dizkiguten liburu ta kanta berriak.

Alegin onetan, Euskalerriko Etxe Argitaldariak ere esnatu dira ta guziak beren aldetik saiatuko dira salgai dituzten liburu ta diskoak erakusten. Oraingo au, asiera besterik ez da. Durango'n egiteko dirana, Euskalerriko beste erri askotan egin eziñik eztago. Aurten an ikusten danarekin, urrengo urtetarako ikasiko degu, ta urtetik urtera, Erakusketa auek indar aundiagoa artu bearko dute.

Liburu ta disko oiekin batera ere, gure dantzari taldeak berrituko dituzte beren antziñako Dantzak. Gure txistu, alboka ta kantariak ere, ederki jantziko dute jaialdiko giroa. Gure erria jasotzeko bidea asmatu ote degu orrela? Erri bat jasotzea, ez dan lan erreza, baiña bide au ezta albora uztekoa.

Zeruko Argia
Oquendo, 22
DONOSTIA

Arpide-saria

Urtekoa ..... 140 pta.

Erbestean ..... 210 pta.

Aidez artu nai bada, galdetu.

ARANZADI'TAR J. M.
Era guzietako seguroak
Barzelona'ko
«LA CATALANA»
Seguroetako ordezkaria
Gipuzkoen
S. Marcial, 33 entlo.
Urrutizkiña 19226
DONOSTIA

Jose Antonio Barandiaran
Naskuntzaunitzu - (Practicante Callista)
Mayor, 2 - Urrutizkiña 20711 — DONOSTIA

ALUAREZ
IKASLEENTZAKO ESKU-ZORRO
Jazteko eta erosketarako poltsak.
Aterkiak eta maletak.
ELCANO, 7 DONOSTIA

Ale bakoitza 3 pezeta

DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

¿Nora garamazik Batikano II'garren onek?

ERDIKALE

"Zabaldu ditzagun Eleizako leyoak... aize berria bear dugu", zion Jon XXIII'garrenak.

Zabaldu ba-zitun, zabaldu zitun...! a zer nolako aize bolada sartu zaigun Eleiz barru-barruraño!

Ideak eta oiturak, astindu ederrak artzen ari dira.

¿Nora ote garamazki Batikano II'garren onek?

BATZUEN BILDURRA

Bildur da jende asko, Konzilio onek ez ote dun erlijio berriren bat sortuko.

¿Jainkoa ere aldatu egin ote zaigu?, diote batek baño geiagok.

Gure aurrekoak jeikiko ba-lira eta ikusiko ba-lute Eleizaren aldaketa au, berriz ere ilobian sartuko litezke "aitaren" egiñaz.

Izan ere...

Protestanteakin bat egin bear dala... judutarrak ez dutela Jesus'en eriotzarekin zer ikusirik eta errugabe dirala... Jainkoaren alde ere ezin leikela gerlarik egin... ezkontza "muxuka" ibiltzeko dala eta semerik ez izateko "kontu-artze" guziak libro dirala... apaizen jantzi ta biziera beste prakadun guzien antzekoak izan bear dutela...

¿Nola ez ikaratu orrelako aldaketakin?

Eta ¿ideai buruz?

Zer nai esan litekela dirudi.

Erlijio gaietan ere nola nai pentsa omen genezake... egia ez omen da egi ta gezurra ere ez gezur, bakoitzaren kontzientzi barnean ez-bada... ortik omen datorzkio gezurrari, egiari zor dizkiogun begirapenak...

Nik al dakit zenbat orrelako dotriña berri!

Burua galtzeko ez ezik, gure siñismen zaarra goitik bera urratzeko añakoak badira aize zalaparta oiek...

BESTEEN POZA

¡Bazan gauzak aldatzeko ordua! diote besteak txaloka.

Eleizako leyoak itxita eduki bear orrekin, or geunden gu itxumen osoan eta or zegon gure Eleiz gaxoa, ez aize ta ez eguzki, armarmasarez josita...

Or ari giñan oyuka: "gu xantu ta zuek pekatari..." inguruko jende guziak uxatzen... egia ta zerua guretzat bakarrik egiñak izan ba-lira bezela...

Irten, irten leyora eta begira kanpo aldera!

Or daukazute Lutero... Eleizak bear bezela jokatu ba-zun garai artan, etzan gaur protestanterik izango.

Erroma da errudunik aundiena... Inkizizio asko eta besteentzat errespeto gutxi... beretzat eskubide denak eta besteentzat zigorra... bera bakarrik egiaren jabe, bera bakarrik santu!

Arrazoi zun, bai, Juan XXIII'garrenak, Eleizak "mea kulpaka" asi bear zuala, esaten zuanean.

Eta Konzilio bat bear gendula... gure oiturak aldatzeko.

¡Zorioneko aize-bolada!

TRANKILDU GAITEZEN

Ez degu ainbesteraño bildurtu bear eta ez degu ere besteen burua ainbeste garbitu bearrik.

Badira Eleizan aldatu ezin genezakzen ideak eta oiturak, Jesus'ek berak eman zizkigulako. Konzilioak ez ditu ikutu gauz oiek, ez ditu ikutuko ere.

Jakin bezate besteak, erru guziak ez dirala gureak, mundu guziak esan bear dula "ni pekataria".

Ez da orretarako eratua izan Batikano II'garren au. Ez etsaien aurka arrika asteko; ez da edozeri edo edonori ateak zabaltzeko ere, Eleiza "saskinaski" bat balitz bezela.

KONZILIO ONEN ELBURUA

Garai batzuetan izan oi du munduak alako "giro" berezi bat. Giro orrek egon ezin bat ematen dio. Udaberriak lurrari bezela... Argi ibilli bear du Eleizak, gizonen berriztu nai orren sustraiak ezagutzeko eta datorren aldaketari kristau izatea emateko.

Garai oietako baten arkitzen da gure gaurko mundu au.

Jakintzak eta teknikak aurrerapen izugarria sortu dute. Ordu gutxitan, mundu ertz batetik besteraño juan gindezke. Gizonen bizitza asko luzatu da; aurrak ez dira len aña iltzen. Gizadia ogei urtetik ogei urtera doblatzen ari zaigu.

Gizartea ere goitik bera aldatzen ari da. Baserri lanetatik igesi dijoa jendea erri aundietara. Giza-talde eta erri guziak egunetik egunera artu eman geiago dituzte alkarrekin. Ez da iñun ere ezer gertatzen, olako edo alako ondorenak mundu guzian sortu gabe. Mundua txikitzen ari da eta zuri ta beltzen problemak bat-batean eta urbil-urbil ikusten ditugu. Batasun billa dijoa gaurko mundua.

Ori alde batetik.

Bestetik, ordea, indarra ez da beiñere izan ain biotzgabekoa. Zigorpean dauzkate Estaduak bai gizon ta bai erri. Aberri aundiak aundiagoak izan nai dute ta or dabiltz nork arma bildugarriagoak sortuko. Eta bitartean, gizonak, irutik bat, gozeak iltzen daude.

Erlijio kontuan, ara nola agertzen zaigun gaurko mundua. Berrogeitamar urte badira, Rusia'n Eleiza sartu ere egiten ez dala; amarretik gora daramazki, Txina ikusi ere egin gabe. Milla milloi gizon baño geiago bizi dira komunismo menpean. Kapitalismo errietan ere, erlijio-siñismena baño teknika-siñismen geiago dute gizonak. Aprika'n eta Asia'n, berriz, berrogei estadu berri sortu dira eta gure mixiolariak naiko buruauste badute.

Bizierak ez ezik, ideak ere aldaketa aundia egiten ari dira eta alimen tankera, mentalidade berri bat ari zaigu sortzen. Galdezka dabil mundua, gizona zer dan, nun dagon zoriona, geroak ezer merezi ote dun...

Izpiriturik ez du mundu teknikoak onek...

Orra or gure munduaren "giro" berria...

¿Zer egin bear du Eleizak?

¿Leyoak itxi ta ez ikusi egin?

Etzuan orretarako sortu Jesus'ek.

Munduaren bila juan bear du, munduaren galderai erantzun bear die.

Orretan ari da Kinzilioan, batez ere azkenengo egun auetan, "esquema XIII" edo dalako arrekin.

Bildurrik gabe eta arrokeririk gabe.

¿Zergaitik bildurtu? Gure Ebanjelioak gaurko ere balio du eta ¡nola!...

¿Zergatik arrotu? Eleizakoak ere gizonak gera eta guk ere barkazio bearra badegu.

Orra or nora garamazkin Batikano II'garrenak.

EPISTOLA

PENTEKOSTE-ONDOKO XXI IGANDEA
San Paulo Apostoluak Ephesotarrai egindako Epistolaren zatia, (6, 10-17).

Anayok:
Indartu zaitezte Jaunagan, eta Aren almen aundian.
Jantzi itzazute soñean jaungoikozko armak,
deabruaren maltzurkeriai gogor-egiteko.
Gure burruka, ez da odol eta aragiaren aurka,
aldun eta indardunen aurka baizik;
mundu illun ontako buruzagien aurka;
zeruko aingeru gaiztoen aurka.
Artu itzazute, beraz, Jaungoikoaren armak,
egun gaiztoan gogor-egin dezazuten;
eta dana garaitu ondoren, zutik iraun.
Zutik, beraz! egia gerrikotzat arturik,
eta zuzentasuna bularrekotzat,
eta pakearen Berri Ona zabaldu-nala oñetakotzat;
gauza guztietan artzazute sinismena babesgarri,
antxe itzaldu ditezen etsaiaren suzko azkon guztiak.
Eta artzazute osasunaren burute-arma,
eta eskuratu Espirituaren ezpata
—Jaungoikoaren Itza, alegia—.

EBANJELIOA

Ebanjelio Santuaren zatia San Mateo'ren Liburutik. (18, 23-35).

Aldi artan:
Parabola au esan zien Jesus'ek bere Ikasleai:
Zeruetako Erreinua,
bere artu-emanak bere morroiakin
garbitu nai izan zituan Erregearen antzekoa da.
Asi zanean,
amar milla talanta zor zizkion bat ekarri zioten.
Eta nundik ordaindurik ez bait-zeukan,
aren emazte, seme-alaba eta zituan guztiak
saltzeko agindu zuan Nagusiak,
eta ordaintzeko.
Morroiak, Nagusiaren oñetan auspezturik,
arren ta arren, onela zion:
—Beta emaidazu, eta dana ordainduko dizut.
Errukitu zitzaion Nagusia morroiari,
eta askatu zuan eta zorra barkatu zion.
Eta, irten zanean,
morroi orrek or topatzen du,
eun denario zor zizkion bere morroi-lagun bat,
eta, lepotik eldu-ta, ito-bearrez, onela erasotzen dio:
—Ordaindu idazu zor didazuna.
Eta lagunak, oñetan auspezturik, onela zion:
—Beta emaidazu, eta dana ordainduko dizut.
Baña besteak ezetz;
eta, joanda, giltzapean sarrerasi zuan,
zorra ordaindu arte.
Aren morroi-lagunak, gertatzen zana ikusirik,
biziro atsekabetuak gelditu ziran;
eta Nagusiarengana joan eta dana berari adierazi zioten.
Orduan Nagusiak deitu, ta onela esan zion:
—Morroi gaiztoa!
Zor guztia barkatu dizut, eskatu didazulako;
ez al-zan bidezkoa,
zu ere zure morroi-lagunari errukitzea,
ni zuri errukitu natzaizun bezelaxe?
Eta Nagusiak, asarretuta,
zigorlarien eskuetan utzi zuan, zor guztia ordaindu arte.
Berdin-berdin egingo dizute zueri ere
nere Aita Zerukoak,
zuek ere alkarri biotzez barkatzen ez badiozute.

Burrukaldi luze baten amaia

Bukatu zaigu bukatu mendezmende Elizak eduki izan duan burrukaldi gogor bat. Batikano'ko II' garren Kontzilioak ekarri digun frutu umotua. Liturjia Deunaren Konstituzioak aurten artu du lege-indarra. Orra zergatik 1965'garreneko urte au, nabarmenetako bat bailitzan, ospetsukiro eliz-kondairara joango zaigun. Zorioneko urtea, otsegingo dute ondoren datozketenak. Elizak azkatasuna erabat eskuratu duanekoa baita. Garaipen aipagarri bat lortu duanekoa. Garbi-garbi gelditu zaigunekoa.

Gure garai auetan Elizak onako au du berezeki elburu ta xedetzat: bere aurpegi dizdiratsua alik osoen erakutsi. Berez dagokion jantzi txuri-liraiñez apainduta ager dakigun. Ta kristau diranak eta ez diranak bete-betean ezagun dezaten.

Gaurgero ez dukegu gure elizetan berdin-ez iguingarririk. Ez aundiagorik eta txikiagorik. Sendoagorik eta mirrinagorik. Aberatsik eta beartsurik. Guziok kideko izango gaituzu. Berdiñak legearen aurrean. Jainko-semeak, ain zuzen.

Batikano'ko Batzar Nagusiaren laugarren eta azken jardunaldi onen bitartean, betorkigu protxu orren aitatzea. Ez ixilka ta mixilka. Itz ozenez deadarka baizik.

* * *

Jatorriz berdintsuak gera. Berdinberdiñak ezpagera ere. Oñarri diran orotan gizon guziak ideko dituzu. Soiña berdintsua daukagu. Orobat anima. Berdin-ez ori azelekoa dezu soilki, xeetasun utsezkoa. Utsa degularik, ezin izan naiko Elizan ezagutu izan ditugun berdingabekeriak ontzat emateko. Dalako «klasismo» ura bidezko egiteko. Seme maitemaiteak. Orra! Ez dago besterik Elizarentzat. Gañontzeko izen aintzagarri ta aundikeri oiek gizartemailla ontako edo artako izatetik datozkigu. Elizako atean batik-bat, beti obe, erantzi bear genitukenak. Iraun bezate iraun mundurako; ez, ordea, Elizarako. Aurrerantzian debekatuta dagoz. Ez dute legezko baimenik. Elizako aulkietan ezin ditezke eseri. Ezetsi egin ditu. Ta betiko zokoratu.

Bidezko erabakia. Eskerrak emanaz eta txalo egiñaz denok jaso bear deguna. Eliza famili antzo baita. Ta zure etxeko sukalde epelean berezikeririk baledi, ez ote litzakizuke nardagarri izango? Leen mendeko billeratan kristau batzuek geiago jaten zutela jakin zualako S. Paulo txunditu egin zala ez ote dakizu? Esan zer esango ote zukean gure illeta-erak ikusi izan balitu? Edo zenbait eztai ta lenengo jaunartze egunetako jatunen artean eseri izan balitz?

* * *

Munduan bizi mundukoak izateke. Kristauen berarizko jarraibidea. Ez izan errez, orratio. Ainbat aldiz eliz-gizon ber-beren jantziak mundukeriz zipristindu izan dira. Kristok «mundua» deitu zion orren kutsu ta bitsa, aldenik-alden zearka, gora-gora igo da, santutegira eltzeraño. Irizpidez eta pentsakeraz. Egikeraz eta bizikeraz. Izan ere, gaur arte iraun izan duan berdin-ez ori mundukeri da. Ebanjelioaren mami ta gunari muturka ta ozka egin izan dion zera. Sortu, indarkeritik sortu zitzaigun. Arrokeri ta agindukeritik. Giza-barrutian berez eta erruz erne oi diran landara pozoidun oietatik.

* * *

Noiztiko gaitza? Ez atzokoa, alajaiña! Orren sustraiak arki ditzazun, zoaz urrutiko urteetara. Laugarren mendean, 313'garrenean zeatzago, Konstantino Inperatoreak otsaundiko lege garrantzitsu bat eman zuan. Lege ura, gañontzeko erlijioen ondoan Kristorena kideko egin zualako, Elizarentzat bizigarri ta indargarri izan zan, ziurki. Bestalde, amaikatxo oztoporen sorleku biurtzekoa izango zenun. Elizak daraman bidea beti arantzaz eta arri mutur-zorrotzez josia! Arpetako illunbetik eguzki-argitara ta lur-sabeletik azalera Eliza ekarri zuan bai, ekarri. Gizonen eskuetara eroriazi ere bai, bide batez. Gurutz odoltsu bat utzi ta beste bat, ura bezin mingarria, ez? sorbaldaratu. Giza-barneko pizti gosetiak noruntz eta Eliza ere indarrez ara eraman nai izango dute, jostaillu uts edo griña-asegarri besterik ezpailitzan. Indarraldirik asko egingo du Elizak usteak-zear ezarri zizkioten lokarriak urratzeko asmoz. Zama lotsagarri ura astindu nai eta ezin!

Garai-une argitsu - lilluragarriak eta umillaali gordin-garratzak: bibietakoak txastatu izan ditu Elizak. Azkenez, gogorraldi ta erasoaldi guzien amaia. Batikano'ko bigarrenak eskeiñi digun garaipen berdingabe ta oso-osoa. Bedi luzarorako.

AGIRREGABIRIAK

DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

NAZIO - ARTEKO - UNEA

ERROMA ETA VARSOVIA

Badirudi "borondate oneko" bixita onek ez duela importantzi aundirik, eta seguru gaudez gure irakurle geienak biaje onen berririk ere ez dutela izan. Ta behar bada egia da garrantzi aundirik ez duela. Ala're badira politikan berri eta gertakizun batzuk diplomaziaren ikusmira faltsua alde batera utzirik, simbolo bezela balore izugarria artzen dutenak. Alde ontatik ikusten dut Italiko Saragat Jaun Lenlakariak egin berri duan ibillaldia Varsovia aldetik. Gerra ostetik Europa-Sortaldeko agintarietatik estreña abiatu dena Varsoviara. Eta bide batez Saragat Jaunak Auschwitz bixitatu du, Italiko resistentziaren (gogor eta zigortuenetakoa) omena eskeiñiaz zigor-zelai ontako "illen ezkillari", edo obeto esateko "bere latza nolabait kentzera Auxchwitzeko illen ezkilari".


Italia eta Polonia. Nozbait eta nunbait alkar-izketa serio bat sortzeko esperantzarik baledi komunisten eta kristauen artean bi nazio auek dira egokien eta obekienik prestatuenak bearrezko den dialogo sail ortarako, nazio bakoitzeko bi alderdikoen artean. Biak bakoitza norbere aldetik diot, ezpaita posible bien artean suerte onetako artu-emanik ahal izatea; ezpada lehen mexpretxatu degun diplomazi maltzurraren bitartez.

Beste aldetik Erroma ta Varsovia, ez dira Mosku eta Vatikano bezelatzu, baiña bien artean gaindu eziñak diran diferentzi gogorrak daudez. Saragat Ipar-Amerikanoen adizkide zintzoa degu eta Varsovia ez dago Moskutik ain urruti. Saragat dudik gabe ez dagoke prest Erri-Demokraziara bere erria bultzaarazteko, orobat kristau-demokraziara urbiltzeko izango ezden bezela Gomulka. Italian "appertura a sinistraren sentidu berezia ain zuzen ere ori baita, komunismoaren arrixkutik begiratzea nazioa, alegia. Eta Poloniako Gobernuak zerbaiteri bildurrik badio, bildur ori sozialdemokrazian edo katoliko-Politikan eroritzea izanen da seguruki.

Baiñan, batzuk Ipar-Amerikakin eta besteak Moskuekin dituen loturak, ez dira ain bortizak, eskuak atxiloturik edukitzeko aiña. Nolabateko lokarri oietatik kampora, duten askatasuna aski da, aurrez-aurre daudezen bi blokeko postura akademikoak uxaturik, prolemak bear diren ikusmiratik aztertzeko. Alde ontatik Alemania, oztopo eziña baldin badirudi (eta ala da, eta ala izanen da gaurko Sortaldeko Alemanian politikaren alderdikeriak iraungo dueño), Italia ta Polonia dira, oztopo ori alde batera utsirik, bi blokeen artean urbillenagoak daudezenak.

Eta nazio-arteko politikan onela badira, nazio bakoitzean lehen aitatu degun kristau eta komunisten arteko alkar-izketa berdin esan diteke. Eta auzi au askosaz interesanteago deritzaigu.

MIKEL LASA



Irugarren Mundako errien ESKUBIRAKO JO-ALDIA

Eta noizko Algereko Affro-Asiatikoen batzarra? Izango den ala ez den orain etzaigu ainbeste ajola, izaten bada zer-nolako kolorea izango duan baizik, ala gorria ala zuria, edozer gauza gertatu bailiteke.

Izan ere Ben Bella erori ezkero sineztu ezineko gora-berak dira Afrika eta Asiako Irugarren Munduko nazioetan.

Garagarrillan azti batek esan balekigu bere kristalezko bolari begiratuaz: "Iru leader ikusten ditu: Ben Bella argeliarra, Afrika o erreboluzio zaleen eredua; Soekarno, Pekinen abantgoardia munduaren gerri-aldean; Shastri, patxarazko gizoan, pasa leikena pasa eta itxuraldatu eziña. Argi ibilli: Konferentzi au asi baiño lehen, Ben Bella ezpetxean sartuko dute eta sozialismo itza gaiztetsia izanen da Argelian; komunistak zapalduak eta irainduak izanen dirade Djakartako kalietan eta Shastri Jaun patxaratzua edozein lendakari baiñ guda-zaleago biurtuko". Iripar egingo genduan, mezederik gabe, eta behar Hegeliano scientifiku batek, bizkarrak altxaturik esango zukean: "Desertuko aize kixkalduak, reboluzioa irakinarazi bezterik ez dezake egin".

Oraingo ontan beintzat Hegelianoaren mintzaira laua eta optimistak ez du efektorik izan eta alderantziz ezbearraren profetaren itz illunak historiaren logikari muxin egin dio.

Zer gertatu da ba Afrika-Asia aldean? Goiko kuadroan agertzen diran gertakizunak argi adierazten digute, eta gertakizun auen muiña puntu bi auetan eman dezakegu:

1.—1964'gn urtean Chou En-lai'ek asiera emandako erasoaldi diplomatikoak Irugarren Munduan, lor jo du.

2.—Eskubirako jo-aldi bortiz baten astiñaldia jasan dute, Afrika-Asiaren zabalera guzian.

Jo-aldi itza apropos erabilli dut, ezpaitut usten, jo-aldi orrek luzaroan iraungo duenik, eta batezere azaleko aize-olaxka bat dirudielako ithxas-ondoko amorroaldi bizia baiño. 1848'gn urtean olako zerbait gertatu zan Europan matxinadaren irakiñ-aldiaren aurka.

MIKEL LASA

MARRUEKOS

1965'gn garagarrillan: erregeak, generalen laguntzrekin, aginte guzia beran artzen du.

ARGELIA

1965'gn garagarrillan: militarrak BenBella botatzen dute. Bumedianek artzen du lendakaritza.

TURKIA

1965'gn urrillan: eskubi aldeko partiduak elekzioetan erras irabazten dute.

INDIA

Neutralismoaren defendatzaille orain arte, konserbadurismo aldera jotzen du, Pakistanen aurkako burrukaldiaren ondoren.

INDONESIA

1965'gn Iraillan: Orainarte Txino-zalea iduri zuen nazio onetan, militarren putsch batek gauzak beztaldera iaultzen ditu.

YEMEN

L=?&)""GN AGORRILLAN: Nasser-aldeko republikazaleak erregezaleekin artu- emanak izatera beartuta arkitzen dira.

R.A.U.

Iraillaren azken egunetan eskubi-eskubitar militarren erasoaldia deseintzen du Nasserek.

SUDAN

1965'gn udaran: Islamiar reakzionarioak itxaltzen dute eskertiaren biurrialdia berrogei egun barruan.

KONGO

Lumunbistak erdibiturik, indarra galtzen asi dira.

ANGOLA

Amerikanoen laguntzrik gabe, portgesen aurkako errebeldia indarra galtzen ari da.

BURUNDI

1965'gn ilbeltza: Txinoen itzala fite garbitua izan da, leen ministruaren eraillketaren ondoren.

RODESIA

1965'gn Urrillan 220.000 zuriek askatasuna eskatzen dute, 3.800.000 beltzeri euren jauntxokeria sentiarzteko.

Felix Etxabe, S. L.

SUKALDETAKO ERREDIZAK (Muebles)

Formikazko erredizak sukaldetarako

ZALDIBIA (Gipuzkoa) — Urrutizkiña 891754

Elizondo kirolak

Armak, eiza ta arrantza, erregalu gaiak, kamping, tennis, sky, golf, sport'erako jantziak

AVDA. ESPAÑA, 4 - TELEFONUA 14210 DONOSTIA'N

Ez Merkenak,

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak,
Eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak,
Berebiziko aragi pillak; gadera esne putzuak,
Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI

Ezkongaiak ta gañontzekoak entzun

Era guzietako mueble aukera etxe ontan arkituko dezute

—o—

«MANUFACTURAS ZARAUZ»

—o—

Lantokitik Etxera

DONOSTI'n:
Ernari kalean 7'garrena

ZARAUTZ'en
Santa Marina kalean 26'garrena

ERLOJU TA BITXITEGIA

Eduardo Chopeitia

Getaria, 10 Urrut. 17751 Etxekoa 22700 DONOSTIA



Nork KUKURRUKUIIIiéé

Ollarrak

ollotegian?

...Ez. FAGOR'ek

sukaldian

DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

BERTSO BERRIAK

Tolosa'ko Albizu degu bederatzi puntuko bertso auen egille. Lasarte bertsolariari jarri dizkio, Amezketa'ko izketaldia gogaraziaz.

1

Bertsozko jolasean
noa asitzera
Ez nator ez, nere
burua asitzera.
Lagun bertsolariei
zerbait aipatzera;
neretzako gaiztoa
izana etzera;
itzetik ortzera
zu aritzen zera
belarri ertzera
gizonen antzera...
Arrazoiakin zertan
egin atzera.

2

Atzo gu, Amezketa'n
euskaldun jalean,
izan giñan eguna
pasa naiean.
Zurekin bildu nintzan
jan gendun maiean
itzegin gendun oso
modu alaiean;
orduko gaiean
bertso lan zaillean
euskera soillean
guziak saillean,
ipiñi nai dizkitzut
gaur ixillean.

3

Uztapide, Basarri,
ta zu, iru jaunak,
Bertsoak kantatzera
ziñaten junak.
Ondora bildu giñan
gu, lengo lagunak
gure alkar izketak
oi dirade leunak;
orain nere lumak
dauzka naiko lanak
ondo jartzen danak
nai nituzkeanak,
Lasarte'k bazkal ondoz
esan zizkidanak.

4

Pernando'n enparantzan
ganbara batian,
Iru bertsolari oiek
egoartian.
Jardun ziran bertsotan
alkarren artian,
guk txalotu ginduzen
poztasun betian;
gero jan tartian
pelota- tokian
umorez, pakian
danok egoki an,
paradisoa zala
esan zeikian.

5

Saioa bukatuta
etorri zanian,
Lasarte exeri zan
aldamenian.
Albizu, esan zidan
laguntasunian,
gu bertsoak kantatzen
ari geranian;
zaude egonian
belarri ernian
sartzen barrenian
ta buruz lanian,
guri ikasten, jartzeko
al dezunian.

6

Itz oiekin etzidan
ez galdu patxarik,
esan nion, gauz orrek
ez du itxurik.
Nerezkoak ba-ditut
lenago ixurik,
nik beztuak ba-dira
bertsoz paper txurik;
etzaude itxurik
letzera iritxirik
aiek ikusirik
buruz ikasirik,
ez al dezu atera
ezer protxurik?

7

Zuek botatakoak
dijoaz aizetan,
Neroni- re jarduten
naiz iñoizetan.
Arratsaldez, gabean,
berdin zait goizetan;
gero paper zabaltzen
alderdu guzitan;
nola ikusitan
bertso ikasitan,
maitale bixitan
euskaldun bizitan...
Nik jarriak kantatzen
ta, zer grazitan!

8

Auxe da biotzetik
dijoakizuna.
Bukatutzeko nere
eginkizuna.
Ba-dakit zuk askozaz
geio dakizuna,
zeure bertsoz zoratzen
beti naukazuna;
egokitasuna
da zuk daukazuna
ta erreztasuna
plazan zu maixuna,
baña bertso paper bat
bete ez dezuna.

9

Orregatik nai zaitut
pixkat zirikatu,
ez gera asarretuko,
ez ikaratu!
Zuk jarriei nai diet
ondo begiratu,
argirik saskipean
ez dedin gelditu;
itz auek aditu
biezu saiatu
orra nik giatu
zuk nola jarraitu,
Bakoitzak, bestek ez dun
doaiak ditu.

10

Orra nik antolatu
nere burutikan,
Ez dira ikasiak
liburutikan.
Zuk asmatzen badezu
auentzat bueltikan,
poztuko ninduzuke
egiz, gogotikan;
ba-dezu gaitikan
naiz asi goitikan
nere aldetikan
artzen baet betikan...
Etzaizu paltako
zeñek botarikan.

11

Apal bateri egin
diot desapio,
Berak itz bat esana
zula merio.
Orregatik etzera
jarriko serio,
orain bilduko gera
len baño sarrio;
geroz ezarrio
ta zeñi zer dio
nago itz jario
nun dagon Orio,
Ba-dakit eta jungo
nazu propio.

12

Lasarte, lagun maite,
orain, azkenian,
Konfiantza eduki
nere esanian.
Zurekin ibiltzen naiz
bromik gozonian,
laguntzarikan iñoiz
bear dezunian;
atoz zuzenian
ninago lenian
jardunaz lanian
gizatasunian,
mintzatuko gerade
nai dezunian.

GUILLERMO ALBIZU
Tolosa

Sisifo, gure...

Eta gizon batek bizitzataz nazka sentitzen duen momentuan bertan, baita ere harria goitik behera dator. Eta harria beti goitik behera erortzen ari da, eta ez da iñoiz gelditzen.

Eta nola gizonok arrazoirik gabe sufritzen jarraitzeko indarrik ez duten, arren deskonponketa honetan argi egin dezala eskatzen diogu Jupiter ezezagun horri, Sisifo'k harriari bultzatzen jarraitzeko esperantza eta arrazoi bat topa ditzan. Garai da.

LETE

NERE BORDATXOTIK

BASARRI

OKERRAK ZUZENTZEN

Okerrak zuzentzeari ekin bearko ziogu lenbizitik. Auxe dek komeria daukaguna!

Ezeren akatsik gabe agertzea nai lanak, eta... beti zedozer, aita kanpoan edo ama etxean ez. Gure "Argia" oietxek illuntzen ditek; letretan ikusten diran txirrixt edo labainketak.

Matxain adiskidearen lenen bertsoa ez ukan lengoan bear bezela azaldu. Ikusi zak, irakurle, legez nola bear zuan:

Bertso berri batzuek
estropadakoak
estropadakoak,
Santoña'n da Donosti'n
jokatutakoak.
Nun dira kuadrilla bi
oien neurrikoak?
Txapeldun atereak
Euskalerrikoak...
Edo obeto esan:
Ondarrabikoak!

* * *

Bakoitzari berea, ta gauzak beren tokian. Danentzat mesedegarri dek ala egiñda.

* * *

SEBERO ALTUBE

Ez dek denbora asko ill zitzaigula.

Bikañetan bikaña ukan euskaltzale artean. Gutxik, oso gutxik ezagutzen ziteken euskera arek ainbatean. Gure izkuntzari buruz Altube'k zituan iritziak, iritzi txalogarriak, zi-ñez.

Norbaitek etzian atzo goizean esan:

Altube, alegia, oso zabala zala errian itsatsita zeuden kanpoko itzeri sarrera emateko, bañ oso estua, bide batez, joskera kontuan, "sintaxis" arazoan.

Bizi balitz, eta "ZERUKO ARGIA'n" azaltzen diran lan batzuk irakurri, zer pentsatuko ote likek maixu aundiak?

* * *

ORRAZKETAREN PREMIA

Etzak beste batzuk pekatari-tzat jota nere burua edertzera natorrenik. Gelago- gutxiago, danok zeuzkagu akatsak; danok gaudek ikasi bearrean.

Joskera baldarrekoak gadek asko. Geiegi, gauza onerako.

Moldeko letretan agertzen diran baldarkeriak kalte aundia egin lezatekek. "ZERUKO ARGIA" diagu mugaz onuztik euskal asteroko bakarra.

Zortzi bat milla eskutara astero astero joaten dan irakurgaia dek.

Irakurle askok, euskal gaietan ezjakin izanik, "ZERUKO ARGIA'n" agertzen dana "fedeko artikulu" bezelatsu artzen ditek.

Etzaiotek iruditzen asteroko batean esakera oker eta aldrebesik ametitu ditekenik. Ontatik zetorrek gaizki erabilitako itzak eta joskerak egiten duan kalte ikaragarria.

"ZERUKO ARGIA'k", nal ta ez, euskera oso mendean duan zuzentzaille, "korretore" bat edo beste bear dizkik.

Oien èginbearra, moldeko letretan azaldu bearreko diran lan danak, banaka banaka aztertzea ta esamiñatzea. Artikuloak bezela errietako berriak. Oker daudenak zuzendu, aurrean daudenak atzera pasa; goikoak bera, joskera aldatu, ta euskal kurpilla erantsi lan bakoitzari. Idazleak, artaraka, denboraz konturatuko ituzkek zertan leuzkateken utsegiterik aundienak, eta zertan alegindu bear luteken geien.

* * *

GERTATUA

Oraintxe urtebete inguru dek au zala.

Errenteri'tik Oiartzun'era bidean niñaken adiskide zar batekin.

Ni baño zarragoa dek bera. Etzak pentsatu moda berriko gaztetako bat zanik. Aren ezpañetatik irten ziran itzak entzunda erabat arritu nindukan. Gure izkuntzak ba-zeukak jorratu eder baten bearra, esan naian nere baitarako. Emen zeok emen- pentsatu nian- gure gaitzaren sustraia, ta... ez kafea, kopa, trena ta olamoduzko itzak erabiltzen. Oietan ez diak nik ezer txarrik ikusten; beste ontan, ikaragarria.

Oiartzun'go baserri egoki bat beatzarekin erakutsiaz, onela esan zidaken adiskide zarrak:

"Neri, arrebak, etxe ortan bizi nau".

Ez diat gogoan sekula iñoiz itz gutxitan ainbateko aldrebeskerirk entzun dedanik.

Konturatuko aiz, noski, irakurle, nere adiskideak zer esan nai zukean. Baita legez itzegitara nola esan bear zuan ere:

"Nere arreba etxe ortan bizi da".

Ez geiago ta ez gutxiago. Orrekin egiña zeukekan dana.

Aren itz traketsak, sikira, aizeak eraman zizkian; nik bakarrik entzun nizkioken.

Ta, posturatsu ortakoak, zorigaitzez, moldezko letretan ikusten dizkiagu.

* * *

BA-DIAT ITXAROPEN

"ZERUKO ARGIA" berritxoa dek oraindik.

Bere ardura daramaten gizonak ba-zekitek ondo utsegite aundiak dituala berekin. Ba-ditek konpontzeko asmoa. Neurriak artzekotan dituk. Jendeak erantzutea komeni dek; gero ta etxe geiagoetara sartzea, gero ta indar aundiagoa artzea.

Gauzak itxuran egingo badira dirua bear dik. Euskaltzaleok orrekin ibiltzen gaituk asarre. Beti errenka, iritxi eziñik, larri...

Mingañez ez diagu berdiñik. Bi baxo- erdi edandakoan ez dek atsegin izaten gurekin. Zeruak eta lurrak astintzen mutillak gaituk.

Bear dan tokirako, ta bear diran gauzak aurrera eramateko, bizkarra jaso; ajolagabekeri ikaragarria agertu.

Aurreratu bearrean atzeraka egiten diagu. Sua eskatzen zaigunean izotzarekin azaltzen gaituk.

"ZERUKO ARGIA'ri" etorkizun bikaña ikusten ziot nik. Gure zabarkeriatzaz konturatuko baigaituk biar edo etzi. Ikasiko baitiagu noizpait sua eskatzen zaigunean suarekin azaltzen.

Ori gertatzen danean beste bat izango dek "ZERUKO ARGIA". Ez dek ezagutu ere egingo. Izango dizkik zuzentzaille ta korretoreak; izango dizkik idazle iaio ta mamitsuak. Egingo dituk premizko diran orrazketak; baldarkeri ta trakeskeriak ez ditek lekurik izango bere orrialdetan.

Orduan egingo dek gizon; orduan izango dek egitazko euskaldun asterokoa.

* * *

PERU ABARKA

Etzekiat nolatan, baña Mogel'en "Peru Abarka" etorri zaidak burura.

Mogel'en liburuak auxe egiten dik: itzetik itzera erakutsi ta erakutsi. Eskola bat dek Mogel'en liburua.

Barbero Maisu Juan asko zeok gure artean. Alakoak argitzeko ta egizko bidean jartzeko, Peru'ren moduko maixu jakintsuak bear dizkiagu. Mogel' liburuan au gertatzen dek: jakintsu ustekoa ezjakin lotsagarri bat dala, ta ezjakin usteko baserritarra, jakinduri ber bera.

Onetxek izan bear dik "ZERUKO ARGIA'ren" egitekoa. Etengabe erakusten saiatu bear dik.

Barberua barberu, ta mozolua mozolo, esaten ziguk Peru Abarka'k.

Mozolua, au da, ontza baño ederkiago jantzitako egaztirik ez dagoala, baña, jantziak jantzi, ez duala iñoiz mozolo izatetik irteten.

Erderaz pentsatuta euskera-ra aldatutako esakerak ere egundo ez ditek galtzen erdel kutsurik.

* * *

MILLA ALDIZ EUSKALDUNAGO

Milla aldiz euskaldunago dek neretzat, "irakasleak Pedro'ri jo egin dio" esaten duana baño, "maixuak Pedro jo egin du" esaten duana. Gogozkoago diat zazpi milla bider, "atzo zuri antzokian ikusi nizun" esaten duana baño, "atzo teatroan ikusi zindudan" esaten duana. Orain, zoritxarrez, pausotik pausora entzuten dizkiagu onelako itxuragabekeriak. Oso ondo ari diralakoan zeudek gañera; guziz euskera garbian mintzatzen diralakoan.

Azalari bakarrik begiratzen ziotek; barren mamiak etziotek ezer esaten. Obraren fatxadarekin txoratuak zeudek. Barrengo lardaskerirk ez ditek ikusten.

Ekaitzaldirik txikienak desegindu dituan obrak dituk orrelakoak.

Oietan etzeok zimendu onik eta iñongo gogorgarririk.


* * *

LASTOA BAKANAGO

Lastoa bakanago ta garia ugariago bear diagu.

"ZERUKO ARGIA'k" ortara joan bear dik legez. Bertan azaltzen diran lanak, malla batzuk goragokoak edo beragokoak izan, ondo idatziak izan ditezela beintzat. Pagoari etzeok intxaurrik eskatzerik. Daukagun baño geiago etzeukagu ematerik. Ematen degun ori diru jatorra izan dedilla, ta ez diru paltsoa. Baldar idatzitako filosofi ta jakintza gai sakonak baño askoz on geiago egingo zeotek euskerari ondo ta legez idatzitako errietako berri apalak.

Azkenengo auek erakutsi egingo zigutek zerbait; lenengoak zoratu egingo gaituatek eta len baño illunago geldituko gaituk biderik billatu ezinda. Sebero Altube jauna aspaldi asi ukan su kanpaiak jotzen, euskaldunok ernai egon gindezen. Urrutira ikusten zian.



DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

GAZTE NAIZ

Sisifo, gure anai hura

«...eta gauaren ondoren, etzen egun berririk argitu».

Sisifo gizon bat zen, eta, rebeldia bat zela medio, Jupiter'ek arkaitz aske ikaragarri bat mendi gallur batera igotzeko kastigua eman zion. Sisifo saiatzen zen; bere gorputz guziarekin bultzaka jasotzen zuen arkaitza an goraño, baño jaso bezin laixter, harri borobill hura berriro goitik behera erortzen zitzaion, eta horrela, etengabeko alperlan desesperagarri batean, Sisifo berriro bultzaka asi bearreko zorian arkitzen zen. Egunero saludatzen zuen Sisifo'k goizean goiz eguzkiaren lehen argia. Egunero igesi joaten zitzaion irudimena, ilusioaren beso, esperantzazko bideetan barrena. Udaberri guztiak ekartzen zioten, almendroen lehen loreekin batera, poz berri eta desesperatu bat, eta illargiaren edertasuna zuen kontsolagarri bakarra udazkeneko gau epel erogarri haietan.

Eta gero, berriz, zeruari aurrez-aurre begiratu, eta harriari bultzaka asten zen.

Baiña, hala ere, Sisifo etzen guztiz zoritxarreko, bere kastiguaren arrazoia bai bazekien. Sisifo hura rebelde bat zen: rebeldiako pekatua kometitu zuen, mundu honetan kometi liteken pekaturik ederrena. Eta horregatik bere begietan orgullo txinpart bat ageri zen beti, eta horregatik bere atseden bakoitzean desafio bat igotzen zen lurretik zerura.

Orrela, etzen berea destino bat, ondoren bat baizik; eta bere paketuaren jabe, etzen bere bizitza guztiz trixtea izan, eta badira zoriontsu izandu zela diotenak ere.

Historiak ez du Sisifo'k nola bukatu zuan esaten, eta etzait ajolik ere. Neri ajola zaidana, Sisifo harek ondorengorik izandu zuen ala ez jakitea da. Eta nere ingurura begi guztiz ikaratuekin begiratzen badet, baietz aitortu bearrean arkitzen naiz, Sisifo'k ondorengoak izan zitula, millaka ondorengo, milloika ondorengo baditula, eta bere ondorengo oiek Sisifo bera baño ere milla bider zorigaiztokoago dirala, euren kastigua kunplitzera kondenatuak izanik, pekatuaren eta epailariaren berririk izan ez dutelako.

Poetak dion bezela, "illobi baten gañean zankolaka jaioak", gerorik, gabe, argirik gabe, esperantzik gabe, jendetza ikaragarriak ikusten ditut egunero kaleetan zear, begiak illun, bihotza estu, bildurra lagun, lur mixerable honen gañean arrastaka, fantasmagoria inpernutar baten antzera.

Ez du egunak argirik ekartzen illuntasun horretara, eta gorputza neke, ahoa legor, goizean goizik asten dute Sisifo berri hoiek eguneroko martxa, gaberaño irixteko indarra nundik aterako duten jakin gabe, agian egunen batean, gutxien espero dezateken momentoan, euren bizitzen sekretuarekin topa ditezkelako esperantza izpi batekin. Esperantza, legorreko lore, horrenbeste ekaitzek autsi, ez duten lorea...

Eta bakoitzak bere harria bultzatzen du maldan gora. Bakoitzak bere bizitza bultzatzen du, harri ikaragarria, dignidade eta pakezko mendi horren gañerañoko alegiñean.

Baiñan harri hori beti goitik behera dator. Esperantza bat edo maitasun bat munduan austen diran momentoan, gizonak goseak iltzen diran momentoan, maitaleak elkar traizionatzen duten momentoan, indarrak beartsua zapaltzen duen momentoan, gezurrak egia eta zitalkeriak justizia engañatzen dituzten momentoan, momentu ortantxe bertan, gure harria goitik behera dator, eta dignidadea ta bakea urratzen dira.

(6'garren orrialdean bukaera)

NESKA MUTILLAK



—«Ik ez dakik ezer, ez duk gauz auetaz ezer ulertzen esan oi didate. Neska batekin, asmo onakin ateratzeko beintzat, ezagutu beharra zegok, konprenitze beharra eta hori ez duk pare bat egun ibilliaz lortzen».

Ez, egia, ez da lan makala persona bat konprenitzea batez ere emakumea ba da, eta lortzeko nahi ta nahiez asko hitzegin beharra... Horrera noa.

Nik ere, Françoise Hardy'k bezela, kideko neska mutillak eskuak eskuetan dituztela ikusten ditut... Bai orixe, eta baita zelan alegintzen diren batek besten barrena ezagutzen. Hori bai hitzik esan gabe ahoaren bidez beintzat, nik uste eskuen izkuntzaren bidez («alfabeto dactologico'ren bidez») egiten dutela.

Nere ustez ezkongai gazteak geiegi ibiltzen dire alkarrekin eta alperrik gainera. Asko ta asko goizetik batera joaten dire lantokietara, fabrikatara edo eskolatara eta irtetzean denbo falta zaie batak eta bestek parkeetako aulkietan esertzeko... Horrela harituaz bai batak eta bestek beren giroko prolemak aaztu egiten dituzte. Mutillak lehen kultura edo kirolatzaz zaletasunik bazuen ere, orain senargaitza geiegi sentitzeagatik alde batera uzten ditu.

Auetako bateri lanen bat eskeintzean milla aitzaki sortu oi dituzte.

—«Barkatu bainan arrapatu egin nindutek, andregaia zeukat, orain etzakat astirik. Ezin diat».

Eskeintza, beste neska batzuekin irtetzekoa izan balitz bezela. Lanak, andregaiarekin ikusterik baluke bezela.

Geienetan gauz auen erru osoa emakumeen edeial falta izan oi da. Personalidade falta. Ez dute pentsatzen, senargaia beoiekin ez danean gauz onik egiten ari litekeanik.

Berekoikeri hori izaten da mutillaren azkatasuna eta lanerako goguarekin bukatzen duena.

Tamala benetan gazte batzuen nahiak, beste gazte batzuen egoismoagatik galtzea.

Gazte baten bihotza ez dut uste kajoi bat danik maitasun bat sartzeko beste bat atera beharrean arkitzeko.

Bein esan nuen ezkontza ezitzaidala finalidadea iruditzen konplementua baizik... Osatzea, konprenitzea, batak besteari laguntzea, bakoitzaren lana, bakoitzak lortutakoa eskuak indarrez elduaz banatu dezan, horrela beren ideia laruntz doan bidea zabaldu dezan.

Bestela haritu ezkero, ezkongaietan lanerako oitura galtze ba da, nekez da bein ezkonduz gero, berriro ritmoa hartzea. Kezka geiago izaten dire eta aitzakiak jartzea errezagoa noski. Horrela azkenian gizona betirako galdua dago, bere ideial bakarra dirua irabaztea izango da.

Neskak, andregai denboran duan berekoikeria izan diteke senarrak gizon bezela duan personalidadea galtzea.

Mutil gazteak, andregaia behar du, languntzalleak, ez ideialaren frenatzalleak.

SAIZARBITORIA

Idazkitza

Donostiko Z.tar Joxek idatzitako eskutitza irakurri ondoren eta egiten duzuna "galdera" ez, baizik zure iritzi desberdiña azaltzea danez, nere adiskide Saizarbitoriak ez zuan ezer erantzutekorik.

Nik ere ordea ba dut beste iritzia ta ematera noa: Zergaitik mintzen zaituzte gazte batzuen egite guziak? Ez baida "nere", "ni" eta "naiz" erabiltzeaak mintzen zaituztena, "nork" erabiltzen duan baizik.

Idazle batek, idaztia zear, barrenean daramana ematen du, ta nere lagun onek au ez gordetzeko gizontasunez jabetua dago.

O O O

Iruñako O.tar I. Pozgarriak dira guretzat zure itz onak. Ainbat eta geiago "Historia triste bat" txalotu zenualako.

Antzerkia egitea erabaki genduanean, Xalbador'ek bertan ziona oso osorik onartzen genduelako izan zan, gero pixka bat bildurtu giñan gauz bat eta bestea irakurriak, ondoren ordea, ez dala alperrikakoa izan gure lana ikusi degu.

Zure eskeintzari buruz, zuzenki erantzungo dizut.

O O O

Oso ondo iruditu zaigu gazte lagun batek bialitako idatzia. Berak ere idatzi nai luke orri onetan eta orrela egiten badu oso ondo artuartuak izango dirala agertu bearra daukagu. Aitatu-tako oñarriak ez dira txarrak "Gu ez gaituk noski santuak, bañan esan bearreko gauz batzuek ba dizkiagu, eta esan egingo dizkiagu, kalteak kalte eta aserreak aserre. Egiaren garaiak ez dituk sekulan pake garaiak. "Ez naiz pakea ekartzera etorri, guda baizik". Eta geroak juzga dezala.

Bejondeikela motel eta aurrera!

ASTETIK ASTERA



Ez dakit barne-giro hau udazkenarekin batera heldu ote dan, ala besterekin datorkidan; baiñan urtero, Urrilla alde huntantsu, bakardade-nahia eta irakurtzeko egarria nigan piztu, eta nere errailez nagusitu ere egiten dirala aitortu behar dut. Lizardi'k idazlearen "erdiminña" azaldu zuen behin oso egokiro; baiña ba dago ere, nik uste, berak ez aipatuagatik ere, udazkeneko "olerki-min" hau.

Eta are biziago gure Euskal Herrian, mendietako gorriztak eta ehiztarien eskopeta-hotsak Aralar'ko eta Gorbea'ko ixiltasunean ezkontzen diranean.

Barne-egoera huntan irakurri dut Francois Mauriac'en "Destins" (Zori, edo Patu, edo Zorte) nobela. Ez da gaurko kontua: Mauriac biziki maite dut aspaldidanik; eta liburu huntan ere maitatu dut.

Zergatik? Ez dakit xuxen. Bihotza duelako, nunbait. Gizon baten abotsa entzun ditekealako, beharbada. Edota ere: olerkari aparte batek idazten duelako bederen, segurki.

Hutsunean nere begirada galdurik liburua bukatu dudanean, bestetan ere nabaitu izan dudana nabaitu dut: irakurri egin ditezke Mauriac'en nobelak. Irakurtzeak on egiten du. Are gehiago, bestetik: hasi ezkero eskutik heltzen baitu irakurlea, eta mundu bizi eta olerkitsu baten barrena eramaten baitu. Jende xehearen zoritxar izkutua ezagutarazten digu, lehengo maitasun haren olhartzun apala, zenbait sentimenduren kaxkarkeria, Gironde-eskualdeko nekazari aberatsen bizimodua.

Illaunaren segailtasuna eta bihotzaren dardara sentiaraztea: horra hor Mauriac'en eragiña. Zein da, ordea, olerkariaren eta nobelariaren eginkizun nagusia?

"Figaro Littéraire"n astero ematen dituen gogoetak ez ditu zenbaitek maite. Ez neuk ere, maiz aski, literaturatik at ari dalarik batik-bat.

Baiña Nobel-Saria jaso zuena, ez da haundi eta sarigarri "L'Express" eta "Figaro Littéraire"etan politikalbistari tematsu danean; "Thérése Desqueyroux" eta "L'Agneau"ren idazle danean baizik.

Eta "nobela-berri" deritzan horri buruz berriki irakurritako esakun egoki bat bururatu zait: "Robbes Grillet ez da nobelari bat, nobela-ijeñeru bat baizik". Esakun hunen egia naarmen agertu zait.

Mauriac'en mundua, hau bai, burges-maillakoa da, ez da zalantzarik. Alde huntatik ba du, nola uka, aspaldiko kutsu zerbait, zahar kutsua alegia. Mundu hori itzalia dala iruditzen zaigu, edo itzaltzekotan bederen. Ba da, hein batean, Paul Bourget'en ezpalekoa eta mendekoa ere.

Baiña Mauriac'en mundua, halarik ere, bihotza duten pertsonek osatzen dute: ez aingeruk eta munstrok soillik. Sorterriko bere amodioa, giza-amodio zaigu. Bere kristautasuna zalantzaz elikatua, eta ez segurkerian finkatua. "Teknikeria"rik gabe, hitz-tema zozorik gabe, berriazkurarik gabe, oparo darizkio bere lumatik olerkitasuna eta egia. Ez da gutxi!

Ekintza-hildoaren sena, olerkariaren etorria, olerkikutsuaren ikutua eta fintasunaren dohaiña nobelari batek dituenean, idazleen maillan ezar diteke.

Nik hau egiten dut Mauriac'ekin. Eta gure nobelariei hein batean bederen eredutzat proposatzen.

Noiz izango ote dugu guk Maurjac euskaldun bat? Agian laister!

GOIENETXE

DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

Antzerki txokoa

BEOBIDE

Aldizkari onen irakurleak ondo dakizuten bezela, ill onen 10'an euskal antzerki taldeak beren eguna ospatu zuten. Egun onetan T. Alzagari eskeñitako omenez gañera taldeetako zuzendari edo ordezkariak ekitera goazen ekeñaldiari buruz mintza zidan baita ere, alkarte onek ze izan bear duan aztartuaz.

Taldeetako garra ikusiaz, urte eder baten aurrean gerala aitortu bear. Ederki etorri da illabete auetako atsedena, orain gogor ekiteko asmotan bai ditugu.

Ez dira makalak zenbait erritan arkitzen dituzten eragozpenak, gazteak izaki ordea ta orrek atzera bultzatu bearrean, gogo geiagokin aritzeko kemena ematen diotela dirudi.

Antzerkia ikasten ari ez dan taldea, arkitzen ari da, besteak kopiak egiten, denak begi belarri beren egin bearretan bene-benetan. Laister lertuko dira, ta orduan nunnai euskal antzerkia dala entzungo dugu. Udaberria bitarte saio ederra izango dugu, bai orixe!

Billera onetan artutako erabakiak orain artean artu emana izan duten talde guzieri biali zaiote: arkituko balitz beste talderen bat alkarte orren berri jakin nai lukeana idatzi dezala arren eta berri guzietaz jakin araziko zaio. Sortzera dijoazten taldeak jakin dezatela, antzez talde auen laguntza osoa izango dutela.

* * *

Karraskedo jaunak idatzi, ta T. Alzaga txapelketan leendabiziko irabazi duan "Laratzean sua" antzerkia, irakurtzeko zoria izan dut. Atsegin izan zait. Asko poztu nau "Zaarrak" oraingo antzezlari gazteak nai dituzten arako antzerkiak idazteko gai dirala ikustea.

Arazo polita aukeratu du, ta ondo artua izango dala sinesten dut. Ori da nik pentsatzen dutana, ta nere iritzia jakin nai ba dezu, orretaz gañera esan bearrezkoa dut, gu ikasleen artean asiera kostako dala ondo egiten. Bizitasuna eman naiean edo alkar izketa oso laburrak baiñan luze sartu dizkiozu; ori gure erako antzezlariarentzat oso zalla da ondo egitea, oso zalla orreri teatrua ematea, garra falta bai du.

Asierako agerpen oien ondoren arira sartzen dijoan bezela, gero ta obeto dijoa, ta laister nabaitzen da sariaren arrasoia.

Bukaera "rosa" xamarra dualaz ez det uste orregaitik ezer galtzen duanik, eta bai agertu zuk bizitzan arkitu nai zendukeana. Tamalez ordea, ez da beti a la izaten.

Antzerki au, laister ezenaioan ikusteko zoria izango duzu, ta ez bein edo bi bider bakarrik, maiz.

Zorionak Karraskedo jauna, ta mesedez ez itxoin bi urte T. Alzaga txapelketari; euskal antzerkiak gaurko antzerkiaren bear aundia du, ia ba tarteka tarteka zure obrak agertzen diran.

Goialdeko antzez zaleak ez daude lotan. Illen o'an P. Larzabal antzerkia agertu zuten eta illen 23'an T. Monzon jauna-rena. Ez dakigu jendeak nola artu zituan, laister izango dugu beiekin itzegiteko beta ta ondoren guziori jakin araziko dizuegu.

Bilbo inguruan, Larrabezua errian talde berri bat sortu ote dan surrumurrua el du da gu gana. Pozik jakin araziko genduke arrazoi sakonak zituala ori esan digunak.

Ze esanik ez, bai ta bai antzezale guziak asko poztuko dirala, Bilboko Unibersidade, Ikastetxe nagusian, euskal antzez talde berri bat sortzen bada. Gauz ederra izango litzake, gogor ba, ta aurrera.

Zenbat buru, ainbat aburu

JOSE LUIS LIZUNDIA

Buru bakoitzeko, iritzi desberdiñak oi dirala, esan nai dugu esaera zaar orrek. Buru bakoitzeko iritzi bat, alegia. Gure Euskal-sail onetan onela dira gauzak. Ain zuzen eskutitz bat artu berria degu eskuetan Bartzelona'tik.

Eskutitza bialdu diguna, naparra da ta bere euskal-egarri ta zaletasuna agertu nairik idazten digu. Begira zer dion:

"Ni Naparra naiz, eta euskera galdu duan Naparru aldekoa. Lotsagarria da Naparroa'n euskera atzeraka joatea. Nere aldetik alegiñak egiten ditut euskera ikasten. Ikasi ere egin det, baiña oraindik erderaz errezago egiten det.

Azkoitiar batek erakutsita, ezagutu det "ZERUKO ARGIA" ori. Benetan txalogarri asterako ori idazten dutenak. Euskera ikasten ari naizen onek gure izkuntzaren garbitasuna alik eta goienera eraman bear degula uste det... Eta orain galdera auek egin nai dizkitzuet:

1-Ni, gipuzkoarren euskera ikasten ari naiz, eta ZERUKO ARGIA'n, 134'garren zenbakian eza'utzen ez ditudan itz batzuek arkitzen ditut. Ala: "ete, be"ta abar. Zer esan nai dute itz auek?"

Adiskide, itz oiek Bizkai'ko euskerarenak dira. Gure "ote", Bizkaia'n "ete" esan oi-dute. onela: Ama etorri ote-da? esateko, bizkaitarrak, Ama etorri ete da, esango dizue. "Be", gipuzkoarren "ere" da. Ta "ia" itzak erderazko "A ver" esan nai du: Onela: "Ia zein datorren" "A ver quién viene" adierazi nai du.

2-Yauna ala Jauna da jatorrago?-Yauna uste danez jatorragoa da, baiña Gipuzkoa'n lendik "j" artu degu etxeko itz auetan.

3-Milla itzeko iztegi bat ba al-da euskeraz?-Iztegi txiki-etan ezagunena Lopez-Mendizabal'ena da. Ta oraintxe asko eztala, argitaldu dute berriro Donostia'n.

4-Zergatik idazten dezue: "Prezioa 3 pezeta" ta onelako itz arlotez, euskal itz jatorrak etxean dituzularik?-Gure euskeldun berri oni, beste guziei gertatzen zaiena gertatzen zaio. Euskera ikasten asten diranak, oso garbi zaleak izan oi-dira. Euskeldun zaarrak geranok, eztegu orrenbeste garbitasun eskatzen. Euskera indartu artean, erdal itzak ere noizean bein sartzea ez degu kaltegarri izango. Gure eskolak ugaldu ta indartzen ba-dira, ikusiko degu ontan zer egin diteken.

5-Zergatik idazten dezue "Iraillak" azkenengo "k" orrekin, Irailla bakarra izanik?-Au da azkenengo egiten digun galdera.

Ara adiskide: aditz batzuen aditz-jabeak edo "sujeto" dalakoak, "k" ori bearrekoa du, bakarra izanda ere. Onela esango dezu: "Iraillak 14 ditu". "Amak ekarri du ogia" ta abar... Zuretzako garbiago izango da erderaz au erantzutea: El sujeto de verbo transitivo necesita una "k" de sufijo, aunque sea singular. Por eso parece un plural, pero no lo es.

Por lo tanto, cuando ZERUKO ARGIA escribe: "Iraillak 20" o "Urrillak 12", en esa frase se sobreentiende: "Iraillak 20 ditu", "Urrillak 12 ditu", "Ditu" es una flexión del verbo IZAN transitivo.

Gure adiskide naparrak adituko al du orrenbestekin esan nai dioguna. Eta urren arte.

ZERUKO ARGIA

AZTERTZEN:

Mea kulpa koletibu bat egin bear dogu guztiok (ni azken mallekoa naz, baña bardin da). Gura badogu euskal irakurle berriak eukitea, gagozan bizio-zirkulutik urten bear dogu. Gure literatura literatura ta betiko iru-lau katuentzat egiten dogu. Antzerki, ez-bai ta norberekeri (iru edo lauentzako garrantzi bakarri dauken diskusiño bizantinoak), literatura ta euskera (itxi orrek Egan eta beste toki batzuetarako, danak ez baña geienak), "Gazte naiz" en aurka be banator, naiz eta neu be gaztea izan eta gauza geienetan, ia danetan, bere iritxikoa izan, ez daukagu eskubiderik orri oso bat betetako, gero lau-bostek bakarrik irakurteko. Lenbe iñoiz esan deutset Zuzendariari baña arrisku aundi bat dala uste dot, literatura aldizkaria, edo minori aldizkari bat biurtzea ZERUKO ARGIA. Neure ustez gure aldizkaria geien bat euskal irakurle berriak lortzeko izan bear dau; ez dedilla gertatu gure errietan gertatu dana, ZERUKO ARGIA meza ostean erosi ta interesdun barri gutxi ekarri ta urrengoan ez erosi eta ez irakurri. Jende askori zelan sartuko deutsagu ainbeste literatura ta antzerki. Puntu au amaitzeko neure ustez idazle geienak artzen dabe euren idea edo eretxiak eagertzeko "base de lanzamientos" bat, askotan interesdunak izan arren, erriari literatura ta olako gauzetan arduratzen eztanari piper bat ardura deutsona. Betikoak bakarrik irakurten jarraitu bear badogu, alkarri karta batzuk egin da naikoa dala uste dot, aldizkari barik; baño irakurle barriak bear doguz eta eurentzako moduko aldizkaria egin bear dogu, ez geurentzako modukoa. Euskaltzale barriak bear doguz, ez lengoak beti dantzan ibilli, batak yenka ta besteak banangoa.

Errietako barriak ugaritu, konprobau dot erriko barriak ekartzen diranean askoz geiago irakurten dirala. Arritu nintzan Garai'ko abadearen omenaldiko barria emon zanean nor asi zan euskeraz irakurten; ez neban uste euskerraz irakurriko ebanik eta gitxiago atsegin izango jakonjk, bera zanik jakin da. Eta Iyorreta'ko gauzen zain ainbeste lagun. Eta ez al da ori bide bat, bertatik jokatu bear geunkana, naiz eta norberaren gustoak aizeratu? Nik ipiñi dodazan ejenplu orrek beste leku batzuetan be bardin gertatu ziran eta dira.

Kiroletan ardurabakoeri aundi bat dago: Finlandia'ko barriak emoten eta emengo futboren, ziklisten edo beste gauza batzuek nun diranik bez. Euskal jolasen txokoa "barregarria da, bertan Atleti edo beste edozen agertzen da: idiprobak aizkolariak, eta olakoak ekarri bearrean, Gillermo Etxeberria orri esango neuskio, emen Bizkaian, eta Elgoibar, Azkoiti, Zestua, Aizarnazabal, Motriku ta beste toki batzuetan, probak garrantzi aundia daukela, baserri kiroletan aundiena, eta nik dakidanez eztakit iñoz ekarri dauen gauz ortaz ezer. Orretarako eta beste sail askotarako kriterio bat bear da. Zuzendaritzaren norma batzuk (pixka bat estuak badira oba) eta gero bertatik jarraitu, bakotxa bere arloan ezpezializatuta eta periodismu sentidu geltxuagoaz.

7 Orri osoko gai bi, dagozan eran ondo dagozala uste dot: "Eliz-arazoak" eta politika koak baña orretan be bizkaierazko artikulo bat balego bakotxean oba. Ez da gatxa izango bakotxetik idazle bat billatzea. Bizkaiera polito agegrtzen da, baña lenengo orrian, pixkat gipuzkeraz nastuta agertuko balitz oba, bizkaitarrak pozago eta gipuzkoarrak, gauza laburrak izanik gure euskalkia irakurten oituko litzakez.

Naparroagaz aztu egin garela uste dot eta Bizkaian egin bada kanpaña txalogarri bat naiz eta dirua galdu, iñun galtzekotan Naparroan galdu bear litzake ta asi Burunda'n eta Luzaide'raño euskeraz asko edo gitxi egiten dan tokietan korresponsalak aurkitu (saltzalleak eta barri-emolleak naparreuskerari ateak zabaldu eta ilzorian aurkitzen dan euskalki ori indartu, naiz eta baserri itxurako gauza batzuri sarrera emon. Ardeo lako bat. Citroen bategaz eta Atxalako bat Iruña'n ofizina bategaz balegoz? Beti gabiz Gipuzkoa ta Bizkai, Bizkai ta Gipuzkoa eta Naparroa ta Araba zer? Leire edo Guridi'ren barriren bat emonda "cumplido el expediente" ez! Eurak ezin baleike, kultura edo diru gitxiagogaitik geuk egin bear dogu. Mendia etorten ezpada geu joan mendira, geu joan Iruña'ra. Bestaldekoak gu beste edo gu baño obeto konpontzen dira. Herriak zenbat eta zenbat errietako gauzak ekarten dituan, bigarren eta irugarren orrialdeak, errietako barriakin betetta, alan eukiko ditu irakurle asko errietan! Gurea literaturaz beteta, plomua baño astunago.


Papeles Pintados y Pinturas, S. L.

Etxekoandre: Zure etxea pintatzea ala enpapelatzea erabaki baño len, atoz guregana. Eskerrak emango dizkiguzu.

Iparragirre, 8-bean
Urrut. 19605 - 21075

DONOSTIA

Baserriaren alde
EUSKAL IRRATSAIOAK



Caja de Ahorros
Municipal de San Sebastián

Banen baneko aziyak
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru aurreratzea
Baserri, lur-tresnak ta abar

Torrelavega'ko Perira joan etorriak.

FUNCOR, S.C.I.

Benetako baserritarrak bear ditutzen MAKINAK:

BIRRINTZALLE - ERROTA - NAASTALE
ZERRA - URAGA - URASKA

Europa'ko aurrerakizuni'k onenak, emengo nekazarien'zat

ADI TA OROI EZAZU
FUNCOR

ELORRIO — AZKAR BEZIN ONDO Vizcaya 114

"II - GARREN BATIKANO BATZARRA"

YURRE'TAR JULIAN A.

ESKATU:
PP. Capuchinos
ALSASUA

GURELESA

GIPUZKOA'KO TA NAPARROA'KO ESNE ONENAKIN GERTUTAKO ESNEKIAK: ESNE PASTERIZATUA, ESNE SOILLA, ESNE-AUTSA, ESNE-GAIÑA, GURIÑA TA ABAR. - EGUNGO EGUNEAN, LURBIRA OSOKO ERRI AURRERATU GUZIETAN, ONELAKO ESNE TA ESNEKIAK BAKARRIK ERABILTZEN DIRA

GURELESA

DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

BASERRI GAIAK

BATASUNAREN BEARRA

Gizonak eztabe beti batasuna bear.

Norberak, berez indartsu ta aberat danean, eztau iñoren laguntza bear, ezta gura bere. Baña, ezer ezin jaditsi dauanean, bakarrik-edo dagolako, orduan nai dau, ta billatzen dau bestien laguntza.

Bizitza ezta leju guztietan bardiñ; iparraldean otz, egoaldean bero, or ugari, an urri. Eguraldia otzago, ta gizonaren estutasuna larriago. Augaitixek iparraldeko Erriak ondoen biziteko aspaldidik euki daroe alkartasuna, egoaldekoak barriz, lurra emankorragoa izana eztabiltz batera ta norkeria da errege euren artean.

Ta orain arrigarriena, askotan lur otzekoak, batasuna dala-ta, ondasun geiago ataraten dabe, lur beroetakoak baño. Au zelan izan daiteke?

Antza danez, aberatsago ta obeto bizi bear leuge bigarrenak lenengoak baño ta ezta olan.

Ta au papel erre baño geiago baieztuteko, adibide bat esango dautsuet.

Nun dago munduan Afrika'ko lurrak baño oparoagorik? Ta batera bertatik, bakoitza bere neurrian, Europa'koetatik baño urriago ataraten da.

Europarrok zentzudun eta burudun garalako, ta areik ostera, lurraren ondasunaren pentzutan egonak, basati ta ezjakin. Egia da, zenbat eta ogia errezago, burua tontoago. Ikusi besterik ez dago, Ego Ameriketa Erriak, Kolonbia, Benezuela, Argentina, ta, naiz ta aberatzak izan, erri atzeratuak dira, al izango eukien baño gitxiago batzen dabenak.

Dakusagun orain Europa'ko Iparra. Skandinabia, Suekia, Finlanda edo Dinamarka. Errialde oneitan, edurra iru edo lau illebetean dago, lurrak maindire zuri oen azpian dagozala. Baña, Laterri oneitan ezta goserik igusten, Frankia ta aberastasun ikaragarria baño. Au miraria! esango dabe askok, urrean. Baña, ez, ezta iñongo miraria, alkarren bearra ta batasuna dira aberastasun ta aurrerapen onein eragilleak.

Bizkaia'n, Gipuzkoa'n eta iparraldeaon doguzan beste anaiak, eztauke Dinamarka'n eta dagoan eguraldi txarra, ezta bertako izotzaldiak bere, baña, zergaitik dagoz bada gure baserritar basetxeak ia il-agiñean? Zelan emengo giroa oba izanik, lurrak eztau ainbeste emoten? Nun dago untzea? Nok edo zek dauka durdua?

Samin eta mingots izan-arren, autortu daigun geure zakartasuna ta batzuetan langintzazazko liburuakanako alperkeria.

Oraingo osagilleak eztabe ez erabilten antxiñako botikak, langilleak eta olak oraingo tresna ta aurrerapenakaz egiten dabe bear, gero ta aurrerago dabill lan guztiak. Ez, txarto esan dot, baserritarrak eztabe bapez aurreratu. Gurasoak itxitako tresnakin ondiño dabiltz-ta. Baña, ez au eziñ daiteke olan. Oraingo munduon bizitoko itxi daiguzan antziñako bizi modu zarrok ta aurrera -kantak diñoanez.

Len aipatu doguzan sorterrietan, antxiña ezin zana, gaur lortu dabe, euskaldunok eurek baño ezgauzago ta tontoago izango ete gara? Ezezkoan nago. Begira euren bizimodua.

Daroen Politika, bakerako ta eskubiderako politika da Gizon guztiok, naiz aberatz naiz txiruok eztogu gudurik bear. Inguruetako auzokoenakin bakean egon ta ez ostu ezer iñori. Baserritarrari eskua emon eta lagundu, ikasteko buru daukanari ikasketak ordaindu; onetaraxe indartzen dira Erriak eta ez gerrakaz.

Ondorena agirian dogu. Errusi edo Alemani ondoan egon arren, erri txiki oneik burua jasota daroe iñori kalterik egin baga. Estaduak aberastasuna askoren eskuetan dagoan nai dau eta ez gitxi batzuek eukiterik.

Sorterri txikiok, geienak iru, bost edo zortzi milloi lagun baño eztaukez-ta, lanean, dirua aurreratuaz ta bakean egonak iritxi dabe orain ain arro erakutsi eliken ondamena. Ta, ez uste gero lurrak eurentzat bakarrik emoten dautsenik; ez, danok Paris'eko edo Berlin'go merkatuetan saltzen ditue euren gauzak.

Abelgorriak, eznedun beiak, York motako txarriak, edo olloak diralata, diru polita egiten dautsie. Erbesteko industriaren aurka ezin dabenez, gauza txiki edo bereizi batzuetan jarten dabez euren alegiñak, beti dirua irabazteaz.

Onetaraxe, Suekoak gaitzairu ospatsuak egiten diñardue ta kelulosa gaietan ere bai, Suizarrak ostera ordulariei ta botika kimikari daragoie.

Industri txikiak ta nekazaritza sendoak, beiak, gariak eta abar, egiten dabe mirari au. Beste estadu batzuek, gerra-zale atzeraka doaz, baserri-gizonak. Industridun lekuetara doakiezalako, lurrak alperrik galduten yakezala. Gobernu oneik bildu eta uzta artu nai dabe, erein eta goldatu barik baña. Jakina, au eziña da; baña buru gogorreko batzuek eztabe konturatu gura... noiz arte?

Egia esan bear ba-dogu, Euskalerriko lurrak Europa'korik onenetarikoak dira, ta gure baserritarrok ezin egonik zabiltze, ez zuok eztaukozue erru osoa.

Bestetzuek dauke baña... ezeizuez alperreko bearrak. Alkartu ta batu auzokoenakin. Zu indartsu ta beargin ona zatzakuz, zu trebea zara, baña alkartuko ba-zintzaz, batera ba-zentoz, zenbat ta zenbat geiago Jortuko zenduke! Zergaitik ez euskaldun, eziñardugu danok batera, Sueko ta Danesak egin daben era orretan? Ez al gara gauza? Aurrera!

I. O.



Euskaldun bat estukurean

Badira mundu zabalean Euskaldun asko. Leku guztietan beti izen onaz. Ipar-Ameriketan, artzain; Australian, aizkolari; Benezuelan, nekazari. Euskaldunak eskuetan artzen dituan arazoak, esku onetan dagoz. Negozioren baten sartzen bada, eutsiko deutso Euskaldunak. Ezta galduko errez. Orregaitik, doazan erri guztietan maitatuak izan dira Euskaldunak. Ba, Peter Etxeberria jaunak diñoan lez, "Ipar-Ameriketako Nevada'n, liburuetan daukaguz Euskaldunen lanak, nekeak eta merituak, egoki ta argiro izentaurik".

Madagaskar'era be etorri gara Euskaldunok. Ez artzaintza, aizkolaritza, edo nekazaritza egiteko, mixiolari izateko baño. Bagara emen Naparrak, Bizkaitarrak, Gipuzkotarrak. Tsiroanomandidy'ko mixiolari guztien Nagusi, Euskalduna da. Ni, Bizkaitarra, Arratia'ko Dima'n jayoa naz, 1919'gn. urtean. Lenengo amar urteetan Maintirano'n ibili nintzan. Bizkai osoa baño lur zati andiago bat neure ardurapean eukiaz. Madagaskar'en Sartaldean ori. Gero, 1960'an opor egun batzuk igaroteko eldu nintzan gure Euskalerrira. A, ze poza! nire ama laztan, nire anai ta arraba, ta beste senide guztiak ikusita! Barriro itzuli nintzan mixionetara, baña ez lengo lekura, Babetville edo Sakay'ra baño, bertan lau urte osotan bear egiteko. Toki onetan, zelan edo alan, ondo ibili nintzan, estukure andi barik, nai ta izerdi batzuk bota arren. Ori ezta ikaragarria.

Gaur sei illabete dirala, beste paraje batera aldatu nintzan. Leku barri onen izena da: BEVATO. Zer esango dot emeko barriak emoteko?... Bai, neure ardurapean dagozan errietan badagoz kristiñauak paganoen artean. Baña, dometketan euren errezuak egiteko batuten diran etxeak, zelangoak?... Ene mutillak! Txabola zar baten antzeko ormak, eta tellatua, ormak baño txarrago. Leiorik? Sarri askotan zulo batzuk orman, bai, besterik ez; uda ta negu, gau ta egun zabalik. Eta non jarri? Geienetan, lurrean, aurkirik eztagolako.

Bear bada, zuk uste izango dozu: zer egiten dabe bertako kristiñauak euren eleizatxoak arteztu barik? Ain alperrak ete-dira?... Ez, ez, alperrak eztira; bear egiten dabe poliki, poliki. Baña gitxi dira, eta orren gañetik, txiroak dirala esan leike inguruetako errietan. Eta ara or nire estukureak! Eleizatxo bat edo beste bat bakarrik balitz, gauza erreza litzake nitzako. Kia, gizona; iru bost, amar etxe zar barriztau bearrean nago. Eta ori lenbailen datozan euri uriolak dana aldatutea gura ezpadogu. Abenduan eta illbeltzan izaten dira emen euri uriolak.

Batez be, emen nabil ni, erri andi bateko txabola motza kendu nairik, patxadazko eleizatxo bat egiteko. Diru apurtxo bat badaukot eskuetan; emeko katolikoak be zer edo zer laguntuten dauztie. Baña, a ta guzti be, beste amar milla (10.000) laurleko bear doaz lenbailen.

ZERUKO ARGIA'ren irakurleakana biurtzen naz. Euskaldunak gara. Euskaldun bat estukurean daukozue Madagaskar'en. Astekari onen bitartez, edo zuen eskutitz baten bidez, noz artuko ete-dot barri on bat?... Laguntzen dauztan bakotxari bialduko dautset barriztauko eleizaren baten argazkia bertako kristiñauahaz batera. Aita Markos'en ondoan. Aurretik eskerrik asko biotz biotzez!

PERRETXIKOAK

Zapaltzen dogun lurra aztertzera ezkero, batetik bestera aldea dago. Emengoak gari eder ugari apatza emoten dau, angoak barazki ta ortuari ikusgarriak. Aretsuak, baltz edo gorri, dira batzuk; buztiñezko azpi, barru ta zorua dabe beste batzuk. Lur-azala zugatzez eta tantaiz beterik daukagu geien bat. Eta zugatzak, adar-gerizpean eta sustrai unguruan batez be, olako gurin ta azkai bereziz oreturiko giro koipatsua sortu oi dabe: perretxikoentzat toki berebizikoa nunbait.

Euskal lurrean beti izan dira zugazti ta tantaidui ederrak; pago, areitz, gaztain, ametz, ler ta gaiñerakoak ugari. Ta onein azpi ta inguruetan ederto etozan mota guztietako perretxikoak. Gaur, zugatz oneik urritu ta eskastu diranean, piñadiak be ez yakuz perretxiku toki txarrak. Perretxikuok, baiña, banaka batzuk urtealdi osoan erneten diran arren, geienak ez yakuz edozein garaitan agertzen; epail edo marti-erdirantza asi ta urrillaren azkeneraiño agertu oi dira geienak eta ederrenak.

Martitik San Juan-aldera datozan zuzak ez dituzu gatzil ta gelberak; baiña, euria egin ezkero, perretxiku sasoirik onenak aguztua ta irailla dira. Beste edozein igali-zugatzek lez, eguzkia ta euria, beroa ta ezkura bear dauz perretxikoak. Egunokaz, ori dala-ta, zugazpe ta piñadiak mota ta klase guztietariko zizaz beterik daukaguz. Eta, orrein aragia agokada gozoa dalako, jente asko dabilkizu euren billa: igande ta jai, eta astegunez, zaletasun orrek eragindako askotxo ikusten doguz mendi ta landa zear. Batzuk jateko dabez, sartaiñean erreta naiz arrautz-opil barruan goxo-goxo gertau ta ondurik; beste batzuk, ostera, saltzeko be bei, gaur jatetxe ta merkatuan gora ederra daukie-ta.

Alan be, batzean ta jatean, kontuz ibilli bear da. Batzuk, onak dira; beste batzuk, txarrak eta oso kaltegarriak. Zeintzuk ete dira onak eta zeintzuk kaltegarriak? Or untzea! Beste edozein jakituri ta ezagutzek lez, sumo ta sena bear dira: batzuk errez-errez igarri ta ezagutzen dabez, indar ori umetatik dakarre-ta; beste batzuk, bizitza guztia mendian erreta be, eztabe oindiño zer ori ikasi, jatekoak eta pozoidunak ezagutzen ez dakie. Eta or arriskua. Ondo ezagutzen eztan perretxikorik ezin leike jan.

Igaro dan illaren 19'an, igandez, Gorbeia'n izan nintzan, ango Edurretako Amaren baso-eleizatxoan meza emoten. Eguraldi ederra. Bilbotar asko izan zan bertan. Berunzkoan, an Zeanuri gaiñeko piñadi egal baten, ainbat perretxiku moltso ta illera aurkitu genduzan. Nigaz etorren bilbotar neska-mutil taldeak, onak eta txarrak zeintzuk ziran asko ezagutu barik, zakuto andiak bete zituan eureaz. Nik arei: "Gazteak, zira artean jatekoak eta berenodunak daukazuez, eta kontuz ibilli". Eurak erantzun: "Bilbo'n ondo ezagutzen ditun bat daukagu, ta arek artetzen dauskuz jan aurretik". Ondo egiña. Bestela asko dira zitaldurik ilten diranak. 1942'an, Bizkaia'n bakarrik, 18 il ziran orrelaxe; pozoiturik txarto ibilli ziranak, barriz, 186'tik gora izan ziran. Aurten be, estu ta larri ibilli diranak, eztira gitxi. Kontuz, ba!

Klase batzuk, urte barru guztian erneten dira: udabarriz, udaz, udazkenez ta neguz. Areitz, pago ta gaztaiña azpietan udabarritik udazkenera bitartean, batez be. Ba-dira ziza batzuk, zuri zabalak, neguan be mota ta bedartzetan, aitz-arte ta zelai-barrenetan ederto datozanak: jateko onak dira. Beste batzuk, lekaxiñak batez be, piñu artean datoz ugari ta eder; lur aretsua nai dabe oneik, eta eguzki begira ba'dago, iñubera baiño obeto. Lekaxin oneik oso gozoak dira jateko, baiña gertatu ta onduten jakin bear da. Besteak be arin atondu ta jan bear dira, igerri barik usteldu egiten diralako, ta ziza ustela guztik kaltegarria dozu. Sutan berotu ta gatz apur bat egiñaz jaten diranak ba-dira, baiña geienak oriotan prijiduta yakuz gozo ta atsegingarrien. Klase asko legortu ta kontserban be ipiñi leitekez, batez be lekaxin, piñatel edo niskaloak.

Zeintzuk dira onak? Ona emen ezagunenak: 1) Urretxa, kirten luzemardo, kapela antzeko goi zabalduna; jateko, gozo samurra; pago, areitz eta gaztaiña azpietan dator geienik; 2) gibel-urdiña (urdin-perretxikoa), lodi biribilla ta, bere izenak diñoanez, gaiñaldea urdin kolorezkoa daukana; urretxa ta auxe ditugu gure artean gozoenak; 3) kuletro edo arrautz-perretxikoa (gorringo); bere koskoletik urtetean arrautz itxura daulako daroa izen ori; ariztietako bedar artean dator be, ta laru gorri koloroa dauko, ta oso aintzat artua da jateko; 4) astopitxa, kapela biribilduna, arrautz itxurakoa baiña kontuz onegaz, ba-dau ba beste bere antzeko bat, oso txarra, amanita phalloides deritxona; 5) galanperna, goizetik etorri oi da; kirten luze, tapel zabal, jateko gozoa; edozein lekutan, gerizpe, bidertz nai saskara artean aurkitzen da; 6) onguak, onjuak, klase asko dira: baltz, zuri, parrutxo, txuatxin ta abar; 7) zizak edo zuzak, klase askotakoak oneik be; bedar berde ta zugazpeetan, zelako motakoak, egon oi dira; gozoenak, alan be, martiaren erdiruntz asita San Juanak arte, Orduña, Gorbeia'n, Lemoatxo'en, Belatxieta'n, Intxorta'n eta onako leku garai beroetan erneten diranak dozuz; 8) bei-miiña (hydnum repadum), izenak diñoskunez, itxura zabal latzekoak dira, ta udazkeneruntz agertzen dira; 9) lekaxiñak (erderaz, niscalo, robellón, piñatel) piñu artean datoz, ta ugari atan be; kirten mee, ezpan biurri, gain laruzkoak dira. Naiko urtsuak. Eta jateko, ur ori kendu ezkero, askoz bigun gozoagoak ditugu. Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n oraintsu arte ez genduzan ezagun, piñu artean datozanak diralako; Naparroa'n eta Kataluña'n, bai ostera. Egunokaz katalan asko dabil emendik, lekaxiñak batu ta batu, ara eroan ta kontserban jarteko nunbait; kiloa zazpi pezeta ordaintzen dabe. Bizkaia'n be onako kontserba-pabrika bat bear genduke, berton datorren ainbat perretxikogaz baliatu ta onura ateratzeko.

Eta txarrak? Lenago gure artean gitxi baiño etziran jaten: urretxa, gibel-urdiña, kuletroa, zuzak eta onguak. Besterik gitxi. Gaur geiago jaten da. Ta, izan be, gure mendietan erneten diran geienak, banaka batzuk kendu ezkero, jatekoak dirala esan gengike. Baiña ba-dira pozoitsuak be. Ona batzuk: 1) arrautza-perretxiko antzeko bat, latiñez amanita muscarius deritxona; kuletroa geienez orizka da, beste au gorri-gorria; 2) boletus Satanas deritxon ongu bat; onek azpia, kirtena ta ao-ertzak gorri kolorezkoak ditu, ta atzez sakatu ezkero, more koloreak artzen dau; 3) urreziza; ziza kolorea dauan arren, urre kolore geiago, ta atzamarrez estutu ezkero, esne-ura emoten dau; 4) russula emetica, urretxaren antzekoa be bai, kaltegarria dozu, txapel gorri zabalduna; 5) astopitx, kapela biribilduna, bata jatekoa ta bestea txarra; 6) lekaxin edo piñatelen artean be ba-da bat pozoiduna; auntz-lekaxiña deritxo, ertzak uletsu dauz, azpitik zurizka ta estutu ezkero, esne zuria emoten dau.

Nun datoz? Len pago, areitz ta gaztaiña-azpi guztietan aurkitzen ziran; orain, zugatz oneik urritzean, ziza leku ederrak be gitxitu egin yakuz. Oindiño ba-dira, alan be, pagadi ta arezti galantak Bizkaia'n berton: Orduña aldeko Altube mendian eta Aiala ibarrean, Gorbeia'ko malda-ertzetan, Barazar'tik Otxandio bitartean, Urkiola'n, Oiz egaletan zerbait eta Kalamu-Arrate inguruan; toki oneitan, gaur be, guri ta oparo datoz urretxak, gibel-urdiñak, gorringoak, onguak... Lerden gozoegi dira-ta, askotxo dabiltz euron ondoren; eta, jakiña, danen sabel-giligilia asetzeraiño ezin eldu sarritan.

Orrezaz gaiñera, oso garesti saltzen dira. Udabarriko ziza, Orduña'koa —tricholoma georgii—, ezta gibel-urdiña baizen gozoa; alan be, kiloa 1.000 pezetan saldu da iñoiz. Piñu artean ugari datozan lekaxin edo niskaloak —lactarius deliciosus— be, ba-dira, ezteguz jatorduetarako ta, kiloa 60 pezetaraiño ordaintzen dabenak.

Gai onetzaz Arantzadi jaunak liburu bat idatzi eban: Euskalerriko Perretxikuak. *Baiña agortua da antxiñatik. Erderaz ba-dira. Guk euskeraz bear genduke olako barri bat, perretxiku mota bakotxaren zeuztasun ta zertzelada guztiakaz egiña; izenak euskeraz, erderaz ta lateraz dituna. Ez litzake lan zailla izango, ta bai oso mesedegarria.*

A. O.

DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

GAZI - GAZAK

Landolako nagusiak morroyari:

—Koxe: denporatxoa daroazu Etxe onetan eta ondiño eztozu ikasi zeure lana bear dan lez egiten. Neure toki onetan, bape begirapenik bage sartu ta urteten zara. Beraz, ordua dozu ikasteko. Ba gara?

—Bai yauna.

—Tiira ba! Orain zoaz «estankura» ta ekarri egidazu ke-belarra, tabakua, baña bidean neska txatxalei, emakume ganorabakoei begira astirik galdu barik.

Urten zan morroya ateari drangada bat emonaz.

Itxuli zan, ta baimenik eskatuge sartu zan nagusiaren lan-gelan.

—(Mai-ganean utziaz) Or dauzozuz ke-belarra ta bostekoaren «buel-tak».

Gayagoko bage bayoyan urtetera.

—Koxe! Zatoz ona! Alperrik da zuri oarrak egitea! Len be esan dautzut zerbait eta... ¡dana alperrik! zeure leloan jarraitzen dozu. Astoko bat lez sartu ta urtetan zara! Neuk irakatsiko dautzut zuri! Bai; okerrak zuzendu egin bear dira, ta ortarako sayo bat egingo dogu.

—Zelango sayoa?

—Ara: Une baterako truk egingo dogu gure malla. Uste egizu ni morroya nazala, ta zu, nagusia. Yesarri zaite zu nere aulkian; ni aterako naz; ta sartuko nazanean, ke-belar billa bialduko nozu.

Yesarri zan morroya nagusiaren aulki ederrean. Atera zan nagusia. Bereala atean ¡kaxk-kaxk! entzun zan.

Pitintxu bat goxo-goxo irikirik galdetu nagusiak:

—Sartu al daiteke, yauna?

—Aurrera!

—(Makur bat egiñaz) Zer nai leuke nagusi yaunak?

—(Bost ogerlekokua emonaz) Zoaz «estankura» ta ekarri egidazu, arren, ke-belarra.

—Ondo da. Ezer geyago yauna?

—Bai. «Ume ederrik ikusten badozu kalean, itz-erditxo bat ari esan gabe, ez pasatu parean».

Ordagoa yaso eban baña ixilik yoan zan nagusia.

Andik lasterrera: Kaxk - kaxk! atean.

—Sartu al daiteke yauna?

—Aurrera!

—(Mai-ganean utziaz) Or dozuz ke-belarra ta bostekoaren «buel-tak», yauna.

—Eskerrekasko. Ederto bete dozu agindua, ta ordañez, jaso egizuz zeuretzat «buelta» orreik.

* * *

Ezagutzak egitean:

—Jeolimo; yaun au, Madrid'eko neure adiskide on bat dok.

—(Eskua luzatuaz, Jeolimo'k) Atsegin andia nabaitzen dot zu ezagutzean. ¡Koontxo! —diñotso bapatean—. Biboterik ezpalitz, neure emaztearen antz andia dozu!

—Baña nik ezpadaukot ba biboterik?

—Zuk ez, baña nere emazteak bai!

ABELETXE




-- Marylin Monroe ete naizen itantu deustie.

-- Tentela bear da izan, zuri ori esateko.

-- Egia diñozu. Nik Gina Lollobrigida'n antza deukot-eta.

ELEKTRIKA GAIAK
ARGIA TA INDARRA JARTZEKO



ARGINDAR

ELEKTRIKA-GAI SALMENTA
Juan Urbieta Irizar


Lantoki-Almazena
Paseo Colón, 13-azpietan

Urrutizkiñak:
Almazenekoa: 11993
Etxekoa: 13668

DONOSTIA

METAL-MAZDA
LANPARA
zabaltzallea

OSBORNE
Y Cía., S. A.



Coñac Veterano

Coñac Magno

Coñac zarrak eta onak



Gipuzkoa'ko aurrezki kutxa probintzikoa

Milloi pezeten zozketa nagusia

ERRENDERI	200.000	pezeta	415.488'garren	kartillari	arruntari
BERGARA	100.000	»	95.444'garren	»	»
LASARTE	100.000	»	499.358'garren	»	»
DONOSTIA	100.000	»	246.194'garren	»	epedunari
EIBAR	50.000	»	161.154'garren	»	arruntari
ZUMARRAGA	50.000	»	269.172'garren	»	»
DONOSTIA	50.000	»	273.798'garren	»	»
ARETXABALETA	50.000	»	286.846'garren	»	»
ERNANI	50.000	»	442.166'garren	»	»
EIBAR	25.000	»	315.346'garren	»	»
DONOSTIA	25.000	»	333.773'garren	»	»
IRUN	25.000	»	340.712'garren	»	»
IRUN	25.000	»	393.987'garren	»	»
ERRENDERI	25.000	»	418.637'garren	»	»
TOLOSA	25.000	»	421.539'garren	»	»
DONOSTIA	25.000	»	497.330'garren	»	»
ATAUN	25.000	»	235.365'garren	»	epedunari
ATAUN	25.000	»	246.012'garren	»	»
ELGOIBAR	25.000	»	248.776'garren	»	»
Guztira	1.000.000	»			

Aurreratu zure kartillan.
Kartillarik ezpadezu, atera zazu lenbailen.
Eta Urrillaren 31'garren egunean zozketa nagusi onen barruan sartuko zera.

IRU MILLOI PEZETA

RADIO - TELEVISION

INTER

TV - TRILUX

Beste edozein markakoa baiño iru aldiz berriago ta gaurkoagoa

Saltzailea:
CENTRAL DE MATERIALES ELECTRICOS S. A.

Ordaintzeko erreztasun aundiak.

DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN



NOIZ IKUSIKO OTE DEGU?

Mexiko'ko Olinpiar jolasetan, Olinpiko Bazkunak ontzat artu du esibizio bezela gure esku pelota agertzea. Au da zorioneko berria, gure pelota jokua goiko mallara jaso duan erabakia. Gure kirol maitagarri ta zaar onek, sekulan lortu ez zuen gaurkotasunarekin arkituko da. Orain gure eskuetan dago esibizio oneri bear duan kategoria ematea, 1.972'garren urterako egi biurtu dedin. Bainan au lortzeko zer daukagu? Ezer gutxi. Ikusi dezagun.

Pelota jokatzen diran nazioak asko dira, bainan geienak profesional maillan. Orrela ditugu Ameriketako. Italia'ko eta beste leku askotako frontoi aundiak eta zergatik ez esan baita gureak ere. Guzietan diru pillak jokatzen dira, noski, eta diru usai onek pelotari asko bereganatzen ditu lenbaitlen aberasteko asmoarekin.

Pelota jokua ain ezaguna izatea profesionaltasunari zor diogu, bainan Olinpiar jolasetarako zaledunak bear ditugu. Eta zer dugu zaledunen artean? Bi erakoak daude itxura danez.

a) Profesionalitzara igarotzeko zai daudenak. b) Kirolatzaz zaletasun osoa dutenak eta ez duenak ezer itxaro beregandik. Bi auetatik norekin lortuko dugu pelota Olinpiko maillara igotzia datorren 1.972'rako? Lendabizikoekin gelditzen naiz, bigarrenak alde batera utzi gabe, amets eder ori lortzeko.

Profesionalak zaledun bezela irauntzea badakit oso zailla dala, atletismoan ordea erakusbide ederrak ditugu baita ere igariketan, Txirrindularitzan eta beste zenbait kiroletan. Ipar Ameriketan batez ere, ejenpluak millaka ditugu.

Nere iritziz ezpala duten pelotariak leku berezi batzuetan bildu bear litzazke eta kirolean zaildu, ongitzen joan, gaiñera bitartean gizon bezela formazio bat artzen joan.

Ideia ona dela uste dut, bai kirolaren aldetik eta baita ere pelotarien aldetik auek askotan formazio eskaseko gizonak formatzeko posibilidadea edukiko bai lukete. Bukatuaz bein betirako lengoak bezela indarrak joandakoan parregarri agertu bear izatea len «lagun zintzoak» ziren aien aurrean. Orrela pelotari zaledun bikaiñak lortu litzazke, bein zailduta gero profesionalitzara pasako litzazkenak. Ideia onek eragozpen bat dauka, fruitua laburra izango litzazkela era batzuetan, bainan ala guztiz ere ez dut uste prolema aundia danik ainbeste zifrako apostuak egiten diran kirol batean. Onerañ nere iritzia. Orain kirol zaindariak dute itza. Noiz ikusiko ote dugu?

ITURRIOZ

ATLETISMOA

Ongarria izandu da urrilla munduko kirol era guzietan bainan izandu bere naigabeko eguna ere. Valery Brumel goiera saltaketako munduko rekordmen'a mototik erori zen Moskou'ko kaletan zijoalarik anaka zati bat baino geiagotan autsiaz. Eskerrak gaur eguneko medikamentueri badirudi bere onera etorriko dela.

Bere gaztetasuna ikusirik, 23 urte, datorren urtean Budapest' en Europako txapelketan ikusteko ez dugu galdu. Ezta ere Jhon Thomas ameriketar bel-



Ona emen MIROIR SPRINT 'etik hartutako argazki eder bat. «fiberglass»' eko pertikagakin egindako salta bat. Pertiga honekin lortuko da dudarik gabe 5,50 metrotik pasatzea

tzarekin Mexikon Olinpiar jolasetan munduko marka 2'30 m. en ikusiko degun itxaropena galdu ere.

* * *

Taldeen arteko Espainiako Txapelketak Barcelonan jokatu dira euskaldun talde bakar batek parte artuaz; Donostiako Real Sociedad'ek eta ez da txarra izan egin duan papera irugarren gelditu bai da, kataluñako C. N. Barcelona eta C. F. Barcelonaren atzetik.

Realekoei berriz ere botatzalleen falta nabaitu zaie. Tamalgarria Euskal Errian ainbeste indartsuren jaioterri atletismoarenganako orren zaletasun gutxi izatea.

Txalogarriak benetan Fernando Agilar 1.500 metrotan Aritzmendi 5.000'tan José Ramón Vega 800'tan eta Bartolome iruko saltaketan.

Baita ere merezi ditu eta beroenak Hernandez «fondistak» «ordezko» bezela nun naiko laisterketan paper ona egiten bai du.

Txokotik Zabalera

UDABARRO'tar KEPA

Tapia II'ak egundoko asiera izan du bere oporraldi ondoren. Ongi erakutsi du bere betean dagoela. Jendearen artean arrada eragin du; ezpaizan uste, ainbeste egun geldirik egon ondoren, pelotari yayoenekin jokatzeko prest egon zitekeanik.

Baiña gure usteak alderantzira atera dira. Atera zan, eta jabetu ere bai; jendearen fedea irabazirik. Ba-da zerbait.

* * *

Bere eiñean arkitzen dan beste bat, Ilario Azkarate txapelduna da. Ta beste ainbeste Gartzia Ariño I'a. Biak jokaldi bikaiñak jokatu dituzte, pelota-giroa gal-galean jarriaz.

* * *

Aize aundian datorrena, Retegi, napar ezkertia da. Bere ezker indartsuari eskerrak, izugarrizko ekaitzak sortu ditu. Bere mendebal aideak, ordubetean bukatu ditu zenbait jokaldi, bere etsaiei arnasa artzeko astirik utzi gabe. Bigarren maillako eskuzko pelota leiaketan, Retegi'ren izena ezin baztartu dezakegu. Alderdi bikaiñak ditu, bai bere jo gogorraren aldetik eta batbateko errematetan, bai bere jaiki ta ibilli askarragatik ere, jokalari bizi ta yayo agertzen zaigula. Orraindik soldaduzka egiten ari da; gaztetxoa degu, beraz. Baiña "tu-tu" Retegi'rekin.

* * *

Ogeta degu egunetan zai daukagun bestea. Aste batzuek oporretan eramanda gero, asteko gogoz dago. Azkenengo galdu dituan jokaldiak, min eman diote; ta beraren asmoa ta gogoa urrengoak irabaztekoa da. Bereala izango ditu aukerak ortarako. Jokaldi onak eta etsai bikaiñak eskura izango ditu. Or degu Tapia II'a, arabarra bere aurka neurtu nai lukena.

* * *

Erremonte ta pala jokoa zertan dira? Bi joko-mota zaar auek beraka dijoaz gure zaletuen artean. Donostia'n eta Iruñe'n erremonteko sei bikote ta palako lau agertu dira bakoitzean. Jokalarien artean arpegi berriak ikusi ba-genitu, ixillik egongo giñan; baiña an ikusi ditugunak, betikoak izan dira ta gazte berririk ezta nabarmendu jokaldi oietan. Zaarrak pozik ikusten ditugu, baiña negargarri zaigu gazte berririk ez sortze au.

* * *

Erremonteak ba-du Donostia'n gertari erakusgarri bat. Gure Gurrutxaga pelota-zalea degu bera. Bein baiño geiagotan txapeldun izan da, bai gure artean eta bai munduan ere. Pala aundi ta txiki jokoan, eta bi aldiz Espaiñia'ko txapelketan nagusi azaldua degu erremontean. Ta orain, urte batzuetan ixillik egon ondoren, Gipuzkoa'ko txapelketan eskua sartu du, ta oso jator geldituaz. Pelotari zaar onek, pala aundian, pala motxean eta erremontean jo ta ke dabil. Erakusbide ederra ematen diguna.

* * *

Bizkai'ko Diputazioak bi milloi pezeta inguru eman ditu zortzi erritan zortzi pelotatoki jaso ditzaten. Jokabide ederra, besteak ere aren antzera joka dezaten. Lenbizi pelotatokiak bear ditugu, ta gero gure gazteei pelotarako zaletasuna ta sua itsatsi bear diegu, gure joko au indar osoan iraun arazteko. Gure erriaren jokoak onenbeste merezi du.

BERRIAK

MELBOURNE. — Joan dan asteko zenbakian esaten genuen bezela Davis koparen azken aurreko partidua Barcelonan jokatuko da, Espaniarren eta Inditarren artean. Australiako federazioak datorren ostiraletik azaroako zazpiren bitartean pokatzeko izendatu du. Espainiarrak Santana, Couder, Gisbert eta Arillak amar egun daramazkite konzentratuak eta optimismo geiegi gabe australiaren bitartean jokatzeko izendatu ko itxaropen haundiak dituzte.

MADRID. — Berria parregarria da. Real Madridekoak, talderik aberetsenetakoa juzgatuaren agindu "Vista Alegre" frontoitikan alde egin beharko dute. Orain harte Real Madriren basket-balleko larre oficiala zen eta talde txuriak ofizinatako jarrita zeduka lekua.

CHARLOTTE. — (EE. UU.) Uri ontako lareun milla'tan, Fred Lorenzen izendatu zen txapeldun "Ford" bat pilotatuaz. Laisterka ontan bertan Harold Kite hil zen arkitu zunean Harold Kiten bolilehendabiziko buelletan. Erihotza doa horduko 200 kilometrora zijoan.

RIO DE JANTIRO. — Berriro ere japondarrak izandu dira munduko judo mailla guzietako txapelketa irabazi dutenak ISAO Contkuma'kKIBROT SASHUILI errusiarrari irabaztean.

PARIS. — Ole Ritter txirrindulariak 100 kilometroko munduko txapelketa irabazi du, Romako Olinpiar belodromoan. Munduko marka 2 ordu 19 minutu ta 2 segundo 6/10'an utzi du, 1965'gn. urtetik Zuchetti italiarrak zuen marka 2.880 horduko geituaz.

LONDON. — Ordubete, 32 minutu, 34 s. ta 6/10'ko denbo batekin TIM JOHNSTON Lasarten bostgarren eldu zen atletak, 30 kilimetroko laisterka munduko marka berri bat lortu du.

BONNERILLE. — (EE. UU.) Croig Breellove bere automovillean 960 kilometro orduko zijoalarik direkzioa galdu zuen. Miragarria benetan miñik ez hartzea, ur-leze batera iritxi baino pixka bat lehenago bolidoa geldi araztea lortu zuen.

ARRASATE. — Fagorkoak aurten profesional laisterketan parte hartuko dute orain harte zaleak ziren gazte talde batekin. Ziur asko, Aranzabal Lasa, Otaño, Mendiburu, Perurena, Errandonea Gipuzkoarrak Alomar, Blanco, Ginés García, Martín eta Santamarina bizkaitarrak izango dire taldea osatuko dutenak eta baliteke Lopez Rodriguez eta Mariano Diaz "Tour de l'avenir" en azken irabazlea ere kontratatzea. Fagor etxeak zale talde bat ere osatuko du.

GOÑI

DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

EUSKAL KIROLEN OLINPIADA



Orain dala bi aste idatzitako irakurgaiari buruz, guregana zuzendu dira kirol-zale banaka batzuek, eskaera batekin, alegia, orduan esan genduana euskal olinpiadaz, orain mamitzeko al ba da

5ngo. Palankaritza.
6ngo. Arraunlaritza.
7ngo. Laisterkaritza.
8ngo. Segalaritza.

Auek danak esan ondoren, eztabaida bat sortzen da. Aberekin egiten diran leiak ez al ko, Donibane Garazi ingurua ta Donapaleu aldea; Xuberoa ta Araba euren errialdeekin...

Bear bezela ondu gabe dagon sailla agertzen zaigu au ere. Bakarren batek gauza




apurtxo bat, argibidegeiago emanaz.

Gure asmoari jarraituaz, ona emen berriro, azalpen batzuek: Esaten genduan zenbaki artan ia ez al zan aalezko izango eusko kutsuta emengo jatortasuna duten kirolen artean olinpiada edo txapelketa bat antolatzea.

Gure iritziz eta naiz dandanak ez aipatu ere, auetxek izango lirake-aukeratutako jolasak:

1ngo. Aizkora.
2ngo. Arrijasotzea.
3ngo. Soka-tira.
4ngo. Pillota.



litzake txapelketa ontan onartu bear?

Or ditugu auen arteko bezela:

1ngo. Idi-dema.

2ngo. Ari-apustua.

3ngo. Artzanora txapelketa.

Gure iritzia baiezko da; onartu egin bear lirake auek ere.

Ba liteke bakarren bat au irakurtzean minberatuta geratzea, esanaz bere gogoko kirola ez degula emen izendatu. Onela ta aurreago esandakoa zabalduaz, berriro diogu: ¿Ez al litzeke egokia izango mendigoizaletasuna-autatzea? Ta onekin batera beste zenbait ben-benetako kirol ez izate arren gure artean ondo-bai-ondo ezarrita daudenak.

Guk emen diogunakin ez degu gai guztia aittu nai; gogoeta apal batzuek azaldu baizik; ez da besterik gure asmo bereziena.

¿Nola egingo litzake? ¿Bakarka ala taldeka? Eta taldeka balitz, ¿nortzuk osatu lituzke talde auek? Probintzi bakoitzak talde bana? Edo bazterraldez aukeratua izango al litzake? Adibidez, Gipuzkoa'n, Goierri ta Beterri; Bizkai'ko, Txori-erri, Arrati'ko Ibarra, Durango Aldea...; Naparro'ko, Baztan Ibarra, Burunda Ibarra, Erribera...; Lapurdi'ko, Itxasbazterra ta Mendi-aldea...; Benaparro'

ontan ala besteetan argimen bat eman nai ba luke, pozik entzungo ditugu bere aburu ta aolkuak.

Txapelketa onen antolaketarako txindi asko bearko litzakela bi bider esan bearrik ez dago.

¿Ordainketa auek, nundik sortu? Beste iritziak beste dirala, iruditzen zaigu Donosti'ko C. A. T., Baiona'ko edo Biarritz'ko Sindicat d'Initiatives, Conseil General du Navarre, Euskal - Aldundiak, Eusko-udalak, emengo Diruetxe ta Aurrezki-kutxak, Izparringiak, Irratiak, eta zenbait Bazkun indartsuak lagundu dezatekela elburu au lortzeko.

Egitera irixten ba da, ¿Zer leku aukeratu? Euskal Erriko edozein uriburu izendatu ditekela derizkiogu. Bidezkoa danez uri onek antolaketaren lana izango luke, baña jasoko liraken dirutzak geienbat an geratuko lirake. Benetan ondo antolatuko balitz aitortu bearra dago ikusle asko izango lirakela ta, beraz, galketaren bildurrik etzaigu iruditzen legokenik.

Nork antolatu bearko luke txapelketa? Gure artean ba ditugu izparringiak aalmen aundikoak. Geiago luzatu gabe or daude, Bilbo'ko «El Correa Español - El Pueblo Vasco»-k eratzen ditun kirol saioak. Españi'ko Itzul-aldia ez da txantxetako egiketa, alajaiñetan, ortxe agertzen dira trebe asko gure bilbotarrak. Donosti'ko izparringiak ere ba dute ezaguera kirol antolaketan. C. A. T.-ek, berriz, urtero eratzen ditu Donostiko estropadak. Beraz, ba dago nork egin.

Eztabaidatzat dagoen beste gai bat auxe degu:


¿Zeintzuk izan bearko lukete aukeratuak txapelketa ontan ari izateko?

¿Aurrez dirugaitik deman ibilli diranei utzi bear al zaie?; edo ta zaletasun utsutsaz ari izan diranari bakarrik utzi bear zaie?

Geure iritzia danei utzi bear zaienekoa da. Euskal-Errian betidanik izan da oitura gure kirolean trabes asko egiten, ta orrezaz gañera ez da laidogarritzat jo diru kontu au dematan.

Bestaldez, oraingo egunetan ez da ain garbi azaltzen, zaletasun uts ori olinpiadetan. Gure irakurleak dakiten bezela azkeneko olinpiadan auxe izan zan eztabaida asko sortu zun gaia.

Azkenik, noizko gertu jarri diteke Euskal Kirolen Txapelketa au?



Urteko lau arotan, udara iruditzen zaigu egokiena. Alabaiña, datorren udarako au dena egitea askotxo izango litzake ezpairik gabe. Lortuko balitz, naiz ez beste izan, kirol auetako batzuen saiketa, aurrerako ere argibidea ta ezaugarria emango luke...

APAL-AZPI



Gráficas Navarras, S.A. - Pamplona - España'n egiña D. L. NA. 80-1963